El resultado es el siguiente: ha habido 49 votos en total, y como han sido 49 votos favorables, se han aprobado por unanimidad. Y, por lo tanto, queda aprobada la Norma Foral que regula la iniciativa legislativa popular.

Pasaremos al segundo punto del Orden del Día. Y para ello:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2022/0002818)
Autor: López Odriozola, Urko (EHB)
Asunto: El Programa Bizkaia Orekan Sakonduz.
Documento Principal: (R.E.11/E/2022/0002818)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (70A)
Expediente: (11/B/20/0004010)

2.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2022/0002818SE)
Egilea: López Odriozola, Urko (EHB)
Gaia: Bizkaia Orekan Sakonduz Programa
Dokumentu nagusia: (11/E/2022/0002818SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (70A)
Espedientea: (11/B/20/0004010)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Buenos días, y muchas gracias, señora Presidenta. Junteros y junteras, buenos días a todos/as.

Antes de comenzar con el tema, quiero agradecer a los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos por el respeto y la rectitud mostrada para consensuar el texto, y también al grupo Elkarrekin Bizkaia por la conversación mantenida al efecto.

La moción que hoy debatimos tiene su origen y fundamento en la cuestión planteada en el pleno de control del 30 de noviembre sobre el proyecto Bizkaia Orekan Sakonduz. En el mismo se solicitó información sobre el proyecto y se trató sobre el sistema de evaluación y los criterios que tenía en marcha Bizkaia Orekan Sakonduz.

Allí, la señora Diputada de Promoción Económica Ainara Basurko, destacó, entre otras cuestiones, la existencia de un panel de mando para medir el recorrido del proyecto y, la segunda, la valoración técnica y económica de cada proyecto por parte de personal experto técnico.

A partir de ahí, se propuso una moción que tenía como objetivo visualizar la información sobre los indicadores que contenía este panel de mando y sobre los informes de personas expertas técnicas.

Atendiendo a los presupuestos y a la nota de prensa de fecha 14 de diciembre de 2022, para el año 2023 se prevé una inversión de 4,1 millones de euros para promover el equilibrio y el desarrollo de la zona, de los cuales 3 millones son para seguir reforzando Bizkaia Orekan Sakonduz, implicando a 24 agencias de desarrollo. Es un número importante de recursos y agentes.

Creemos que es imprescindible visibilizar la importancia del proyecto Bizkaia Orekan Sakonduz junto con su gestión y resultados. Y es que todos los proyectos de la Diputación Foral de Bizkaia deberían tener esa visión, es una obligación de transparencia que toda institución tiene con la ciudadanía.

No diremos nada nuevo si manifestamos que hay que visualizar el trabajo de las instituciones públicas a la ciudadanía, ni diremos nada nuevo al decir que así se cumple el criterio de transparencia. A menudo, la forma en que se realiza esta visualización es la más cuestionada, y también el foco de discusión.

Una vez presentada la moción, la semana pasada los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos de esta Cámara presentaron una enmienda conjunta y quedamos para ver si se podía o no acordar una transaccional con la juntera Ibernia Belamendia del grupo Nacionalistas Vascos. Y acordamos la transaccional.

Dicho esto, y sin extenderme demasiado, vamos a los tres puntos acordados que son objeto de debate:

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari honakoa eskatzen deutsie:

1. Lurralde-lehiakortasuna sustatzeko Bizkaia Orekan Sakonduz Estrategiaren helburu eta emaitzen zabalkundean aurrera egin dagiala, eta Bizkaiko Foru Aldundiak garrantzitsutzat joten dauzan gainerako adierazle garrantzitsuenak erakutsi daizala jarraipena egiteko eta informazinoa emoteko, helburu horregaz daborduko Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jentearentzat eskuragarri dagoan eremu edegiaren bidez, informazinoa bere osotasunean zein eskualdeka erakusten dauena; eta aldian-aldian

eguneratu daitela.

2. Orekan Sakonduz Estrategiaren esparruan babestutako proiektu garrantzitsuenen jarraipenak tarteko jarraipen-bilerak be kontuan hartu daizala, proiektu bakotxaren hasieran eta amaieran egiten diranez gain.

3. Urtero argitaratu daitela Bizkaia Orekan Sakonduz Estrategiaren esparruan egindako proiekturik garrantzitsuenen laburpena.

Sin más, de nuevo agradecemos a todos los partidos mencionados. Gracias por su atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Tal y como ha comentado el juntero, los grupos Socialistas y Nacionalistas Vascos han presentado una enmienda. Por lo tanto, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Tira, gure ustez Bizkaia Orekan Sakonduz programeak jasoten dauzan helburu orokorrak helburu nagusi eta lehentasunezkoak izan behar dira eta dira, izatez, Foru Gobernuaren ekintza osoan, hau da, Bizkaiko eskualdeen lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa eta lurralde-orekea bultzatzea. Hain da horrelan ze..., eta tira, aitatu barri da hontsu onartu dan aurrekontuan 3 milioi euro erabiliko dirala programa hori bultzatzen jarraitzeko. Izan be, programa horrek kalidadezko enpleoa sortuko dauen hazkunde justua eta orekatua ekarri gura dau, barrikuntzea, iraunkortasuna eta talentua oinarri hartuta.

Beste alde batetik, sozialistok uste dogu funtsezkoa dala politika publikoak eten barik ebaluau daitezala, hareen jarraipena egitea eta gainerako emaitzak eta planteautako helburuen lorpen-mailea aztertzea, eta, jakina, azterketa hori, ebaluazino hori herritar guztien artean zabaltzea. Arabere gehiago programa horreen politiken inpaktua edo irismena handiagoa danean, gaur egun aztertzen ari garan kasuan jazoten dan lez. Izan be, joan dan abenduan Bizkaiko Foru Aldundiak berak emondako azken datuen arabera, besteak beste, eraldaketa digitalagaz, Smart Mobility-agaz, enpresa-lankidetzeagaz, barrikuntzeagaz edo nazinoartekotzeagaz lotutako 172 proiektu eta ekimen babestu dauzan programea da, esan dodan moduan.

Horrelan, gaur eztabaidatuko dogun azterketa honetarako, gure eretxian, ahalik eta erispide eta adierazle objektiboenak erabili behar dira, jakinda, hori bai, dana ezin dala beti zehatz kuantifikau, neurtu edo alderatu. Eta horretaz ari da eztabaida hau, azterketa edo jarraipen hori Bizkaia Orekan Sakonduz programeari ezarteaz, eta helburu eta planteamentu horregaz erabat bat gatoz. Eta aurkeztutako mozinoak, edo gure zuzenketeak berak eta erdibideko zuzenketeak ñabardura edo hobekuntza barriak txertatzeko asmoa izan daben arren, edo bide horretan sakontzeko asmoa, gure ustez, bidezkoa da esatea edo aitatzea Aldundia daborduko egiten ari dala programa horren azterketea eta jarraipena, eta zentzun horretan, azaletik aitatuko dodan arren, Ekonomia Sustapeneko foru-diputaduak azken Osoko Bilkuran azaldu ebalako, aitatzekoa da (eta aurretik izandako agerraldian be esan da) bilera teknikoak egiten ari dirala, teknikariek jardueren jarraipena egiten dabela, eta bultzatutako proiektuen balorazino ekonomikoak egiten ari dirala, besteak beste. Horren guztiaren helburua da aginte-taula bat egitea, horren bitartez programearen eragina eta lortu gura diran helburuak

ezagutzeko, edo proiektuen estadistikak hainbat adierazleren bitartez ezagutzeko. Eta hori guztia Bizkaiko edozein herritarrek eskuratu lei web orriaren bidez.

Halanda ze, badago daborduko eskualdeen urteko diagnostiko bat eta, gainera, publikoa da. Diagnostiko hori Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak ezarten dauzan parametroen arabera eginda dago, eta datu argiakaz aztertzen dabez eskualdeen lehiakortasun-mailea, finantzaketea, Lurraldeko enpresen edo eragileen parte-hartzea eta eskualde bakotxaren egoerak edo bilakaerea.

Tira, ba, hori esanda, lehen be esan dodan moduan, proposamena egin dauen taldeak aurkeztutako mozinoa dago, Alderdi Sozialisteak eta Alderdi Abertzaleak aurkeztu dogun zuzenketea, eta baita 3 taldeon artean adostu dogun zuzenketea be; izan be, egindako lan horretatik abiauta, Aldundiak programa horren gainean egin behar dauen jarraipena eta ebaluazinoa hobetzea edo sakontzea aitatzen da, bai eta planteautako helburuen lorpen-mailea be. Horregaitik, tira, aurkeztu dan azken zuzenketa horretan, 3 taldeok proponiduten doguna zera da... Laburtu egingo dot, aurreko agerraldian zehaztu da-eta, baina tira.

Lehenengo eta behin, lehen aitatutako web orrian bertan jente aurrean zabaltzea programearen aurrerapena emaitzei eta helburuei jagokenez, eta informazino hori adierazleak erabilita erakustea, bai orokorrean, bai eskualdeka, eta, jakina, hori aldian-aldian errazoizko maiztasunez egitea.

Bigarrenik, Bizkaia Orekan Sakonduz programearen barruan bultzatutako proiektu garrantzitsuenen jarraipena egiteko, proiektuen hasieran eta amaieran jarraipen-bilerak egiteaz gain, tarteko jarraipen-bilerak be egin behar izatea jaso daitela. Eta, azkenik, hirugarrenik, urtero programearen proiektuen edo estrategia nabarmenen inguruko informazinoa argitaratu daitela.

Azken baten, amaitzeko, uste dogu planteamentu egokia dala, zentzunezko ekintzak proponiduten dirala eta, beraz, Ganbera honetako taldeek adostasun handia lortzeko gai dirala. Eta, tira, amaitu baino lehen, eskerrak emon gura deutsaguz proposamena egin dauen taldeari akordiorako prest egoteagaitik.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Ibernia Belamendia, tiene usted la palabra.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Hoy traemos al debate una moción presentada por EH Bildu sobre el programa Bizkaia Orekan Sakonduz del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Para contextualizar el tema, Bizkaia Orekan Sakonduz es una iniciativa creada a través de la colaboración entre el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y BEAZ, junto con las agencias de desarrollo local y comarcal, para promover de forma equilibrada la competitividad de las empresas del territorio. Para la Diputación Foral de Bizkaia es un proyecto estratégico que está incluido en el plan de mandato Bizkaia Egiten, ya que contribuye a que Bizkaia esté

más cohesionada y equilibrada.

Como se ha comentado en numerosas ocasiones en estas Juntas Generales, el objetivo de este programa es contribuir al crecimiento sostenible y al empleo de calidad en las comarcas vizcaínas. En esta iniciativa tenemos en cuenta temas como la innovación, la internacionalización, la creación de empresas, la digitalización y la sostenibilidad, principalmente.

Y nos gustaría destacar las principales características del programa Bizkaia Orekan Sakonduz: la cercanía de los agentes locales y comarcales con las empresas, la coordinación entre los agentes e instituciones implicadas, la eficacia y la orientación a resultados. Por otro lado, hay que explicar que se trata de un programa flexible, basado en la colaboración y el trabajo en red, con un compromiso compartido.

Lankidetzan eta guztion artean egindako lanaren bide horretan, garrantzitsutzat joten dogu nabarmentzea abenduan Bizkaiko Foru Aldundiaren, BEAZen eta Bizkaia Orekan Sakonduz Sarea osotzen daben tokiko eta eskualdeko eragile guztien artean izan dan topaketea. Bertan, programearen azken ekitaldietako ondorioak aurkeztu ziran.

Horrezaz gainera, urte honeetan eratu dan gobernantza-eredua eta Lehiakortasunaren Behatokia be azpimarratu behar doguz. Behatoki horren bidez, proiektuan parte hartzen daben eragileei informazinoa, ezagutzea eta adimen estrategikoa emoten jake.

Topaketa horretan igazko Bizkaiko eskualde-diagnostikoa be aurkeztu zan. Diagnostiko hori Orkestrak Lehiakortasunaren Euskal Institutuak garatutako ondoizatearen zerbitzurako lehiakortasun-esparruan oinarrituta dago, eta lurraldearen ondoizate-mailea kontuan hartzen dau. Diagnostiko hori programearen webgunean begiratu leiteke, eta lehen deskribidutako datuak eskualdeka aztertzen dauz.

Mozinoa proponidu dauen taldeak aurkeztutako itaunean, programa horren gauzatzearen ebaluazinoari buruzko informazinoa eskatzen zan, eta Ainara Basurko diputaduak zemendiaren 30eko agerraldian azaldu eban zelan egiten dan ebaluazino hori. Azalpen zehatzak emon ziran, eta aginte-panela eta saileko teknikariek egindako balorazino teknikoak eta ekonomikoak nabarmendu ziran. Agerraldi horretatik honako paragrafo honeek nabarmenduko geunkez:

“Entonces, para estructurar bien esta dinámica de ejecución y seguimiento que se lleva a cabo con estos 5 ejes, hemos diseñado un panel de mando, un cuadro de mando, que estamos alimentando desde el año 2021. La estructura del panel de mando es la siguiente:

El primer apartado es: valoración del impacto de la iniciativa Bizkaia Orekan Sakonduz en el Equilibrio Territorial, monitorizamos la competitividad de las comarcas analizando el grado de convergencia de los indicadores a nivel comarcal.

Segunda parte: valoración del desempeño de la estrategia Bizkaia Orekan Sakonduz.

El tercer apartado es la gestión operativa: los que valoran el día a día”.

Mozinoari jagokonez, EH Bildu bat dator proiektu horren garrantzi estrategikoagaz, eta jarraipena eta ebaluazinoa egitearen garrantzia azpimarratzen dau.

Jarrera horretan bat dator Euzko Abertzaleak taldeagaz. Hori dala eta, EH Bilduk aurkeztutako mozinoaren erdibidekoa egitea adostu dogu. Mozino horren barruan, proiektuaren jarraipen hobea egiten lagunduko deuskuen hiru mugarri ezarri doguz, Bizkaiko eskualdeen lehiakortasunaren hobekuntzan daukan eragina hobetzen laguntzeko.

Garrantzitsua da Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean publiko orokorrari edegiteko guneak Eskualdeko Lehiakortasunaren Behatokira sartzeko aukerea emotea. Bertan, herritarrek Bizkaiko udalerri eta eskualde guztietako hainbat urteko lehiakortasun-adierazleei buruzko informazinoa aurkitu ahal izango dabe (bilakaera- eta konparazino-ondorioak atera ahal izango dabez), bai eta horri buruz egindako txostenak be, lurralde- zein eskualde-ikuspegitik.

Tarteko feedback horri esker, proiektuak aberastu ahal izango dira, unean uneko egoerara egokitu, eta emaitzak hobetu.

Eta, azkenik, esan behar dot jardunbide egokiak zabaltzeak alkarlaneko ikaskuntzeari eta ekimenen arteko sinergiak bilatzeari laguntzen deutsela.

Gure ustez, lan-ildo horreei esker, urrats garrantzitsuak emon ahal izango dira Bizkaia lehiakorragoa eta orekatuagoa izatea helburu dauen proiektu honetan. Eta, jakina, eskerrik asko sinatu daben taldeei.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ibernia Belamendia. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Tira, Talde Popularra, zuek adostutako zuzenketa honen bozketan gu abstenidu egingo gara, eta, egia esan, uste dogu galgea jarrita saiatu zariela aurrera egiten, eta ez dogu uste aurrera egiteko modu bat danik. Mozinoa, gure ustez, sano azaleran geratu da, baita idazketan bertan be; esaterako, jenteari edegitako esparruaren bidez emon dakiola dokumentazinoa, webgunean eskuragarri dagoana, hau da, ezer barririk be ez litzateke egongo, eta aldian-aldian eguneratu daitela. Hau da, eperik ez badogu ezarten, badakigu zelan funtzionetan dauen normalean foru-gobernuak. Esaten neutsuena, uste dogu nahiko azalean geratu zariela eta ez dagoala zehaztasunik. Jakina, bat gatoz programa gehiago fiskalizeteagaz. Gure ustez, tira, programa horrek ez ditu gure Lurralde Historikoko eskualdeek daukiezan arazoak konpontzen, ezta euren artean dagozan desbardintasunak be, bai enpleoari jagokonez, bai ehun ekonomikoari jagokonez, bai per capita BPGari jagokonez.

Askotan, eta halan esan dau Talde Popularrak Ganbera honetan gai honen inguruan eta beste batzuen inguruan be, emoten dau marketin-iragarki edo Power Point kontu asko dagoala, baina gero, benetan kuantifikau leitekezan helburuak ikusten doguzanean, bada, hor gagoz, esan deutsuedan lez, azkenean gaiaren munera heltzen ez diran gauzetan; hau da, gure ustez, edo Talde Popularrak, guk uste dogu ez dagoala Bizkaiko egunerokotasunerako estrategia argirik, eta, horregaitik, gai honetan eta beste hainbatetan, ba, handitasunetik edo itxurakeriatik harago, ba, orokorrean bizkaitarren egunerokotasunean benetan eragiten ez daben gai edo politiketan geratzen gara, eta, beraz, sigi-saga egiten saiatzen zarie, benetan kuantifikagarriak diran helburuak ez ezarteko. Izan be, helburu horreekaz foru-kudeaketa publikotik lortzen diran emaitzak ikusi ahal izango geunkez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. Y el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, aurreko puntuari helduta, barriro be kontu bera daukagu, hau da, ea garrantzitsuena akordioak lortzea ete dan, edo adosten dana bera. Eta, tira, eta Víctorrek parte hartu dauenez, zuzendu egingo dot esandakoa. Uste dot 6 dirala eztabaidatu barri dogun arauaren ondorengo batzarkideak; ez 3, ezpada 6.

Tira, gaian sartuta, Bizkaia Orekan Sakonduz-ek dino Bizkaiko lehiakortasuna modu orekatuan indartzeko Ekonomia Sustatzeko Sailaren estrategia dala, BEAZen bidez garatua eta garapen-agentziakaz lankidetzan. Eta eskualdeen arteko orekeari eusteak, ba, programa horren interesa sortzen deusku, arduratu egiten gaitu. Ez jakuna argi geratzen da zeren edo noren aurka lehiatu behar dogun. Tira, horregaz ez gatoz bat, lehiakortasunaren ikuskera neoliberal horregaz. Horregaitik, esan dodan moduan, EH Bildugaz bat egiten dogu, hau da, gardentasunean, kontu-emotean eta estrategiaren berrikuspenean hobekuntzak lortzeko kezka horregaz. Uste dogu hori bat datorrela 3. helburu horregaz, maila anitzeko gobernantzea egituratzen dau-eta, zeharkako bi ardatz objektiboakaz batera. Eta, tira, eta hemen azpimarratu gura dot Bizkaia Orekan Sakonduz zer dan azaldu dala hemen, baina oposizinotik tematzen aritu garalako, horri buruz galdetzen etorri garalako, eta ez borondatez. Web orri edo atal bat eukitea zer dan azaltzeko ez da nahikoa. Izan be, informazinoa ez zan nahikoa, eta, horregaitik, horri buruz galdetzen ibili gara, besteak beste, hobekuntzak proponiduteko, sartu ete eitekezan jakiteko, eta emoten dau baietz, sartu ahal zirala.

Ondo, tira. Esan behar dot bildur ginala EH Bilduk zeozelan ez ete eban amore emon beharko bere proposamenak zehazterakoan, baina sinatu daben akordioak hobekuntza eta zehaztasun nahikoa emoten dau gure babesa lortu dagian. Eta, gure aldetik, gainbegiratuko dogu ea horrelan dan, ea hori zehazten dan, ea zehaztapen hori garatzen dan beharrezkotzat joten doguzan hobekuntzak egiteko.

Y dicho esto, quiero subrayar que votaremos a favor. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. Pasaremos al turno de réplica. Desde el escaño, señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: En primer lugar, gracias a todos los partidos que defienden esta transaccional.

Beharbada, Talde Popularrari esan geinkio epeen inguruan, proiektuek iraupen bera daukienean, aldi berean hasten diranean, aldi berean amaitzen diranean, epeak sartzea errazoizkoa izan daitekela, baina eskualdeetako proiektuek epe desbardinak, hasierako puntu desbardinak eta amaierako data desbardinak daukiezala uste dogu. Halanda ze, hor aldizkakotasuna askoz be handiagoa izan leiteke, fintzeko gatxa dala esan geinke, baina egia da aldizkakotasun hori noz dan ikusi beharko doguna bere momentuan, denporeagaz. Penea da gainerako taldeok adostu dogun zeozegaz bat ez egitea, baina, tira, denporeak esango dau zein neurritaraino aurkitu geinkezan beste alkargune mueta batzuk.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor López Odriozola. Socialistas Vascos, desde el escaño, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias.

Nik, beste barik, pare bat galderari erantzuteagaitik. Aurretik egon dan agerraldian esan dan moduan, Talde Popularrak zehaztasun eta eperik eza aitatu dauenean, gure ustez, gehiago da mahai gainean malgutasun moduko bat jartea, eta, gure ustez hori egokiagoa da horrelango kasuetan data zehatzak zehaztea baino. Izan be, gure ustez, gainera, Foru Aldundiak berak be jarraipena eta ebaluazinoa egiten dauz, eta, gainera, jarraipen eta ebaluazino hori argiratatu egiten dogu. Halanda ze, zentzun horretako konpromisoa argia dala ikusten dogu, eta, beraz, ez dot uste gaur adostutakoa gauzatzeko borondatea zalantzan jarri behar danik. Eta estrategia hori, edo estrategia mueta hori marketina edo itxurakeria dala esaten danean, ba, aurretik egon dan agerraldiak be aitatu dau 24 eragile dirala inplikau diranak, 172 proiektu, 3 milioi euro inbertiduta. Hau da, argi dago estrategia horren aldeko apustu zehatza eta irmea dagoana, eta ez dana marketina bakarrik, ezpada jarduera zehatzak, baliabideak, helburuak eta jarduerak dagozala. Hau da, zentzun horretan, Bizkaia Orekan Sakonduz estrategia tresna baliotsua dala uste dogu.

Eta, amaitzeko, Elkarrekin Bizkaia Taldeak esan dau ez datorrela bat horrelango jarduerak lehiakortasunaren bidetik proponiduteagaz. Tira, eskualde ezbardinetako produkzino-sarearen lehiakortasuna hobetzeaz edo sustatzeaz ari garanean, ez dogu ikusten lurraldeko eskualdeen artean lehiatzeko modu lez, ezpada gustau ala ez, mundu globalizau baten bizi garala, gehiago gustau ahal jaku, gitxiago gustau ahal jaku, baina gure lurraldeko enpresek funtzionau behar daben eta lan egin behar daben testuingurua horixe da.

Halanda ze, gure enpresak edo gure produkzino-sarea garatu daitela gura badogu, kalidadezko enpleoa sortu daitela, bizirik iraun dagiala, modu jasangarri bat egin dagiala eta denporan iraun dagiala gura badogu, ba beharrezkoa da enpresa lehiakorrak izatea, esparru edo kontzeptu hori gitxiago edo gehiago gustau. Beraz, lehiakortasunaren kontzeptuak Bizkaia Orekan Sakonduz estrategiaren barruan egon behar dauela uste dogu. Gure aldetik, besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Ibernia Belamendia, tiene usted la palabra.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Muchas gracias.

Bigarren agerraldi honetan, gure taldeak programa honi buruz egiten dauen balorazino positiboa nabarmendu gurako neuke, horrelango proiektuei esker gure enpresak modernizetako eta nazinoartekotzeko lanean ari garalako, eta kalidadezko enpleoa sortzen dogulako.

Gainera, azpimarratu behar dot programa hau industria-enpresei eta zerbitzu aurreratuetako enpresei bideratuta dagoala eta toki-garapeneko eragileakaz, udalakaz eta mankomunidadeakaz sarean behar egiten dogula; beraz, gure ustez, bete-beteko programea da, Bizkaiko eskualdeetako hainbat eragilegaz behar egiten dogulako.

Eta, horrezaz gainera, horren bidez, Bizkaiaren garapen lehiakorra eta orekatua lortzeko lan egiten da, eskualde guztiak eta hareen errealidadeak kontuan hartuta.

Y, por último, agradecer a todos los grupos que están de acuerdo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ibernia Belamendia. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, desde el escaño, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Bai, eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Labur-labur.

Nik, Trimiño jauna, eufemismorako eta igesbideak bilatzeko daukazuen gaitasuna autortuko deutsuet, zehaztapena bilatu beharrean (helburuak, honeek dira daukaguzan helburuak eta hau da helburuen betetze-mailea). Gauzak sigi-saga ikusteko modu hori bilatzen dozue beti, beharbada ez jatzuelako gehiegi komenidu, ezta? Hau da, izan be, kasu honetan, eufemismoa malgutasuna edo aldizkakotasuna izan daiteke, baina horren inguruan asko dakizue.

Esan doguna, gu bat gatoz programa honen fiskalizazinoaren hobetzea bilatzeagaz, eta uste dogu lortu dan erdibideko hori labur geratu dala, baina esan deutsuet adituak zariela politika publikoen ebaluazinoa lausatzen saiatzen.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. Y Elkarrekin Bizkaia no va a intervenir. Por lo tanto, una vez finalizado el debate, someteremos a votación la transaccional. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido 46 votos en total; han sido 44 votos favorables, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobada la transaccional.

A continuación, el tercer punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2022/0002819)
Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Asunto: Medidas para elevar la ambición en la lucha contra el cambio climático.
Documento Principal: (R.E.11/E/2022/0002819)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (71A)

3.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2022/0002819SE)
Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Gaia: Klima-aldaketearen kontrako burrukan dagoan anbizinoa handitzeko neurriak
Dokumentu nagusia: (11/E/2022/0002819SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (71A)

Expediente: (11/B/20/0004011)

Espedientea: (11/B/20/0004011)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, y buenos días a todos/as.

Bizkaiko Foru Aldundiak klima-aldaketearen aurkako burrukan daukan konpromisoari eta ekintzei buruz aurreko Osoko Bilkuran izan genduan eztabaidearen ondoren, Elkarrekin Podemos-IUk mozino hau aurkeztu dau. Mozino horretan, proponiduten doguzan edo proponidu doguzan hainbat neurri batzen doguz Bizkaiak klima-aldaketearen aurkako burrukan daukazan ekintzak eta konpromisoa indartzen jarraitzeko.

Ganbera honetako hainbat taldek eta Foru Gobernuak berak be esandakoaren haritik, klima-aldaketea Bizkaian orain aurre egin behar deutsagun erronka handienetako bat da, eta gizateria lez danok aurre egin behar deutsagu. Eta, gure ustez, adituen taldearen (Klima Aldaketearen Gobernu arteko Panela – IPCC) seigarren txosteneko alerten ondoren, tira, egia da be ahaleginak eta neurriak ugaritu egin behar doguzana.

Eztabaida horretan Bizkaiko Foru Aldundiak datu bat emon euskun, eta berreskuratu egin gura dot, mozino honetan proponiduten doguzan neurri batzuk errazoitu daidazan. Eztabaida horretan esan zan Bizkaiko Foru Aldundiak 2014tik 2021era bitartean abiarazotako neurriek urtean 189.000 tona CO2 atmosferara isuritea saihestu dabela. Kopuru ona da, baina testuinguruan jartea gustauko litxakit; izan be, Hegoaldeko Saihesbidea eregiten hasi zanean, berbarako, egunean 42.000 ibilgailu ibiliko zirala kalkulau zan. 42.000 ibilgailuk urtean 126.000 tona CO2 isurten dabez. Hau da, eraikuntzako isuriak alde batera itxita, Hegoaldeko Saihesbidea dalakoaren gitxi gorabeherako erabilereak Bizkaiko Foru Aldundiak 6 urteko ahaleginetan eta neurrietan lortu dauzan urteko ia aurrezki guztiak daroaz. Halanda ze, uste dot horrek aukerea emoten deuskula zifra horreek testuinguruan jarteko eta konturatzen gara, zoritxarrez, ez dirala hain ikaragarriak. Eta kalkulu hori bera egin geinke, ba, tira, Foru Gobernu honen beste makroproiektu handi batzukaz: Lamiakoko itsasadarpekoagaz, Ezkerraldeko parkeagaz, eta abarregaz. Izan be, esan dodan moduan, horreek erabiltearen isurien kalkulua ez ezik, kostu ekologikoa edo horreen eraikuntzearen karbono-aztarnea be kontuan hartu beharko geunke.

Azken baten, nire ustez, klima-aldaketearen aurkako burrukan, tira, norbere buruari guzurrak esanda ez dogu inork ezer irabazten. Horregaitik, klimeari jagokonez, lurraldearen gobernantzea nabarmen hobetuko leukien neurri batzuk proponiduten deutsueguz.

Lehenik eta behin, klima-aldaketearen kontrako ekintzetara bideratuko dan foru-aurrekontuaren ehunekoa urtero zein dan zehaztu daitela eskatzen dogu. Horrek urtez urte horretarako egiten diran inbersinoak kuantifiketako eta alderatzeko aukerea emongo leuskigu, bardintasunera bideratutako aurrekontuagaz egiten dogun moduan aurrekontuaren kalkuluagaz; izan be, hori, tresna sano erabilgarria dala autortu beharra dago.

Bigarrenik, dakargun beste proposamen bat da Foru Gobernuaren proiektu bakotxerako edo proiektu nagusietarako behintzat, karbono-aztarnea kalkulau dagiala bere balio-bizitza osoan, eta informazino hori herritar guztientzat publikoa izan daitela, Ganbera honetan be ebaluau ahal izan daigun proiektu horreen egokitasuna isuriei eta klima-aldaketeari jagokenez.

Eta, hirugarrenik, lurraldeko karbono-aurrekontua kalkuletea be proponiduten dogu, hau da, lurraldeak onartu leiken edo onartu geinken isuri-kopuru maximoa kalkulau daitela, aldi berean tenperaturearen igoereari eutsita nazinoarteko klima-helburuen barruan, hau da, tenperaturearen igoera-gradu eta erdi horretatik behera. Mozinoak bigarren proposamen-moltso bat be jasoko leuke, eta energia-eremuagaz eta, zehatzago, Euskadiko Jasangarritasun Energetikoaren Legeagaz lotura estuagoa daukie. Itaunean gure taldeak esan eban lez, tira, euskal administrazino publikoek energia-trantsizinoan aurrera egiteko orain daukien tresnarik erabilgarrienetako bat dala uste dogu, eta Foru Gobernuari be aukerea emoten deutso sailen arteko beharra sortzeko energiaren arloko neurriak aztertu eta ezarteko orduan.

Horregaitik, tira, mozinoan zera proponiduten dogu. Lehenengo eta behin:

Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsagu Lege hori garaiz eta behar dan moduan bete dagiala, ezin izango litzateke-eta beste modu baten izan, edo ez leuke izan behar.

Bigarrenik, orain arte hartzen ari diran neurriak sortzen dabezan diru-sarrerak eta aurrezkiak energia-neurri barrietan inbertidu daitezala proponiduten dogu. Hori ez da barritasuna, Jasangarritasun Energetikoaren Legean horrelan ezarrita dagoalako, baina guk egiten dogun proposamena izango litzateke hori guztia batera eta integrauta kudeatu dagiala energia-enpresa publiko batek.

Eta, hirugarrenik, bada, tira, trantsizino energetikoaren arloko aholkularitza-zerbitzu bat sortu daitela proponiduten dogu udalentzat edo auzotarren komunidadeentzat. Izan be, gure taldean ikusi dogu zelan, batez be udal txikiek, ba, tira, askotan gaitasun eskasa daukiela energia barriztagarrien istalazinoari edo eraginkortasun energetikoari buruzko neurri egokienak hartzeko, azkenean udal txiki batek behargin gitxi eta baliabide gitxi daukazalako aholkularitza teknikoa jaso ahal izateko, eta uste dot bulego horrek arazo horreek konponduko leukezala, eta, era berean, auzo-komunidadeak animauko leukezala energia barriztagarrian edo isolamentuan inbersinoak egiten, esaterako. Horreek guztiak atoan abiarazo leitekezan neurriak dira, eta legegintzaldiari gitxi geratzen jakon arren, hor geratuko lirateke hurrengo Foru Gobernurako, bata izan edo beste bat izan.

Amaitzeko, badakigu aurten Klima Aldaketeari eta Euskadiko trantsizino energetikoari buruzko Legea onartuko dana. Mozino hau idazterakoan kontuan hartu genduan, baina tira, Legearen zirriborroa aintzat hartuta be, neurri bateragarriak dirala uste dogu. Gure eretxiz, kasu batzuetan egin beharrekoaren zeozelako lana erraztuko edo aurreratuko leukie, eta, horrezaz gain, Bizkaia ekintza klimatikoaren abangoardian jarriko leukie, eta helburu horregaz guztiok bat gatozala uste dot.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta; buenos días a todos/as.

Hain zuzen be, Elkarrekin Bizkaia taldeak proponidutako itaunetik eratorritako mozino hau daukagu, klima-aldaketearen aurkako burrukan anbizinoa areagotzeko neurrien inguruan.

Euskal Sozialistak bat gatoz klima-aldaketeagaz eta CO2 isuriak ahalik eta arinen murriztearen beharragaz. Klima-aldaketea errealidade bat da, eta daborduko igarten ari gara horren ondorioak. Legegintzaldi honetan klima-aldaketeak leku nagusia hartu dau Batzar honeetan. Hori funtsezko alderdia da, hau da, arazo bat dagoala onartzea, izan leitekezan konponbideei heldu ahal izateko.

Bada, fase horretan Aldundia ari da neurri zehatzak ezarten, diputaduak joan dan zemendiaren 30eko Kontrolerako Osoko Bilkuran azaldu eutsuezanak, esaterako. Mozinoan sartuta, aurreratzen deutsut aurka bozkatuko dogula, batez be hiru errazoigaitik:

Lehenengo eta behin, mozinoaren enuntziaduan erakusten dalako Aldundia ez dala ezer edo ia ezer egiten ari klima-aldaketearen aurka burrukatzeko, eta hori ez da egia.

Bigarrenik. Alderdi teknikotik martxan jarteko konplejuak diran protokolo batzuk eskatzen dira; beraz, denporea behar da eta ezin dira berehala aplikau.

Hirugarrenik. Gauza batzuk eskatzen dozuez, eta horreetan Aldundiak ez dauka eskumenik; beste administrazino batzuen eskumenetan sartzen zarie. Dana dala, gaiaren garrantzia dala eta, ez gara kontrako botoagaz konformetan, eta Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeok erdibideko batera heltzen saiatu gara, eta azkenean ez da posible izan, baina, halanda be, osoko zuzenketa moduko alternatibea aurkeztu dogu, eta gure ustez, mozino honen xedea benetan beteten dau, hau da, klima-aldaketearen aurkako burrukan ($$$ 01:37:40) neurriak ezartea, eta jatorrizkoaren sano antzekoa da. Alde batetik, Aldundiari eskatu egiten jako, baina baita orain arte egindako lana balorau be; eta, bestetik, klima-aldaketearen aurkako burrukea bizkortzeko ekintza zehatzak proponiduten dauz.

Zuzenketeak honakoa dino:

Lehenengo. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie Jasangarritasun Energetikoaren Euskal Legearen helburuak beteten jarraitu dagiala. Jarraitzea dino, azpimarratu egiten dot.

Bigarrenik. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie 2022an onartutako Bizkaiko Foru Aldundiaren Eraginkortasun Energetikoaren Plana bete daitela eta jarraipena emon dakiola, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren, Ingurumenaren Kalidadearen Zerbitzuaren, Jasangarritasun eta Klima Aldaketa Atalaren eta eragindako foru sail guztien parte-hartze aktiboaren bidez; era berean, 2023an jarraipena emon degiola daborduko egiten hasita dagoan Foru Sektore Publikoaren gainerakoaren Eraginkortasun Energetikoaren Planari, harik eta onartu daiten arte, eta behar bezala kudeatu dagiala lortutako aurrezkiak eta diru-sarrerak barriro inbertiduteko betebeharra, horretarako egokiak diran instalazino, jarduera eta eskuratzeen bitartez. Hau da, jarraitzeaz ari gara, ez gara ezerezetik abietan, eta Aldundi osoa inpliketan dogu.

Hirugarrenik. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari

eskatzen deutsie, gehienez be bi urteko epean, sistemaren bat ezarri dagiala ikusteko aurrekontu-betearazpenaren ze ehuneko dagoan bideratuta klima-aldaketearen aurkako ekintzetara, helburu horretarako egindako inbersinoak urtez urte kuantifiketako eta, horrezaz gainera, alderatzeko.

Laugarrenik. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie, bertako Foru Sailen bitartez, bere jarduerako karbono-aztarnea kuantifikau dagiala eta azterlan hori egin dagiala, berenberegi, karbono aztarna handia eragiten daben proiektuetan. Hau da, karbono-aztarnearen kuantifikazinoa be aitatzen dogu.

Eta bosgarrena. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie eze, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumenaren Kalidadearen Zerbitzuko Jasangarritasun eta Klima Aldaketa Atalaren bitartez, eta jagokon eskumen-esparruaren barruan, eta beti be udalen autonomia errespetauta, halan eskatzen daben udalei energia-trantsizinoaren arloan aholkuak emon degiezala, arlo horretan orientazinoa emon degiela, eta, gainera, eraginkortasun energetikoaren arloan udalei emoten jakezan dirulaguntzen esparruan klima-aldaketearen arloan kanpoko aholkularitza espezializaua emon degiela udalei, bai eta auzo-komunidadeei be udalen bitartez, beti be komunidade horreek udalen partaidetzea euki ezkero, eta udalei emoten jakezan dirulaguntzetan integraurik, beti be aurreko baldintza beteten bada. Hau da, alde batetik, erakundeen arteko lankidetzea dogu berbabide, eta baita herritarrei laguntzea emotea be.

Gure ustez, zuzenketea mozinoa proponidu dauen taldearentzat guztiz onargarria da. Lehen esan dodan moduan, alde batetik, Aldundiari eskatu egiten jako, baina jarraitzea aitatzen da, neurri asko dagoz-eta martxan eta jarraitzea eskatzen dabe. Eta, beste alde batetik, neurri errealisteagoak dira, foru-erakunde guztiak inpliketea dauka helburu, eta, gainera, erakundeen arteko lankidetzea sustatzen dau. Baina, tira, mozinoaren bozketearen emaitzea gorabehera, bizkaitarrek jakin behar dabe Aldundia erabat konprometiduta dagoala klima-aldaketearen aurkako burrukan eta karbono-aztarnearen murrizketan. Ekoizpen-eredua eta biziteko modua aldatu behar doguz, 2050erako 0 isuri egon daiten. Baina jakin behar dogu hori ez dala egun batetik bestera lortzen, ezpada apurka-apurka eta eragile politiko, ekonomiko eta sozial guztien laguntzeagaz. Halanda ze, zuon mozinoaren kontra bozkatuko dogu.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Beitia Zurinaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Sí, buenos días, y muchas gracias, señora Presidenta.

En relación a la moción presentada por Podemos, en esta primera intervención no voy a reiterar ni a hablar de las cuestiones que se han mencionado anteriormente, y me referiré especialmente a la enmienda realizada por nuestro grupo y el partido socialista.

Debo señalar que tanto desde nuestro grupo como desde el grupo socialista hemos hecho un esfuerzo por llegar a un acuerdo, y que es de agradecer la actitud mantenida por el grupo Podemos en ese esfuerzo, de la mano de Benito Ziluaga. Al final, el acuerdo no ha sido posible, pero creo que es reseñable y que las razones del

rechazo no han sido para evitar o negar el cambio climático, sino razones técnicas o problemas de redacción.

El problema del cambio climático y sus consecuencias están presentes y se pueden ver todos los días. La gravedad de este problema también la sufrimos todos los días. Luego también ha llegado a la sociedad y cada vez está más preocupada, y quienes estamos aquí, siendo parte de esa sociedad, también vemos el reflejo de esa preocupación. Nuestras instituciones tienen conocimiento de ello y no han parado.

Cabe destacar lo manifestado por la diputada Antxustegi en el pleno de noviembre, que la Diputación está plenamente comprometida con las acciones de aquí y con la política climática que se está desarrollando en la Unión Europea.

Para explicar todo esto, recordaré algunos de los datos aportados allí.

La Diputación comenzó a dar sus primeros pasos en 1997. Desde entonces, cabe destacar que ha desarrollado una serie de proyectos, programas, medidas y actuaciones ante el cambio climático. La Diputación ha realizado un diagnóstico previo a la elaboración del plan de acción, en el que aparecen más de 97 medidas, de las cuales solo se mencionaron las importantes en su momento, de las que yo citaré algunas, sobre todo las relacionadas con la moción.

Apoyo a ayuntamientos y mancomunidades para el desarrollo de la eficiencia energética, que se viene prestando desde 2014 y que estaba dirigido también a las comunidades vecinales, cumpliendo con las demandas obligatorias.

Deducciones impulsadas por la inversión ambiental, desde el Departamento de Hacienda (se calcula que con esta medida se ha evitado la emisión de 192.000 toneladas de CO2 a la atmósfera).

El año 2021 se crearon la Comisión y la Dirección de Sostenibilidad Energética de la Diputación, etc.

No voy a repetirlas todas tal y como se dijo. Se pueden ver en el acta de fecha 30 de noviembre. Y entonces tampoco se mencionaron todas, todas, porque son 97.

Con esto, y para contextualizar, como ya he dicho al principio, cabe destacar que la Diputación está comprometida en este tema y que está trabajando con todo su empeño en ello.

Y llegados a este punto, me centraré en nuestra propuesta.

Tiene 5 puntos, y está en gran medida alineada con la moción presentada, pero entendemos que las administraciones son capaces de llevar adelante las medidas que hemos propuesto, son más reales.

El primer punto, y con los datos aportados, nos lleva al debate de siempre. En la moción parece que la Diputación no hace nada, y eso no es así, y para destacarlo se propuso una modificación.

El segundo punto, en la herramienta que estará recién creada hubo como una especie de acuerdo. En la moción se pide que aparezcan los datos en los presupuestos y creemos que por el momento no es posible. Y por ello solicitamos que se lleven a la cuenta general. Así, además, también será más real. Se puede evaluar lo que se

ha gastado en ella y, una vez iniciado, sirve de igual forma para hacer balance y hacer comparaciones año a año.

El tercero. También alcanzamos un acuerdo inicial y en general no creo que haya grandes diferencias, sino en la forma de redacción.

Y el último. Aumentar el apoyo que ya presta la Diputación a los ayuntamientos y mancomunidades, y se pedía mejorarlo en el futuro. En esto estamos de acuerdo, pero hay que tener en cuenta que tanto fuera como dentro de la Diputación cada departamento concede sus ayudas a otras entidades, como por ejemplo, el EVE, etc. dentro de sus competencias. Yo soy concejal de un ayuntamiento pequeño y sé los problemas que hay en un ayuntamiento pequeño para llegar a la Diputación o a otras instituciones, pero creo que este caso no es un cambio climático, creo que es otro problema más profundo, que habría que tratar en otro formato.

Con todo lo dicho, decidimos llevar adelante nuestra enmienda, y no ha sido posible el acuerdo, pero también quiero subrayar que las diferencias no son muy grandes y quiero ponerlas en valor. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Beitia Zurinaga. A continuación, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Buenos días a todos/as.

Egia esan, klima-aldaketeari buruzko eztabaideari buruzko berbaldi luze eta nahiko entretenigarria prestauta nenkarren. Badakizue gure alderdiak ez dauena egin gura klima-aldaketearen aldarrikapen bat, edo saiatzen da hori ez egiten, baina nenkarrena aurreztu egingo dot eta zuzenean sartuko naz mozinoan. Izan be, berotegi-efektuaz, isuriez eta gauza onez berba egiteko, aurrekari batzuen inguruan berba egin dabe aurretik egon diran batzuek, eta mozinoa zuzenean ekarriko dot. Nire ustez, sano egokia da, eta sano zuzena da. Nire ustez, mozinoan dinozun moduan, aitzindaria da alderdi batzuetan, begiratu zer dinotsudan. Gero esango dot beste zati batzuetan ez dogula bat egiten, baina uste dot aitzindaria dala.

Hasteko, mozinoak dinoan moduan, aurrekontuetan karbono-aztarneari buruzko azterketea egin daiten aurrekontu bat eukitea aitzindaria dala uste dot. Uste dot etorkizuna dala. Bat gatoz danok klima-aldaketeari buruz berba egin behar izateagaz eta Aldundiaren aurrekontuetan ingurumenean edo klima-aldaketan izango dauen eraginaren edo itxiko dauen karbono-aztarnearen inguruko kalkulu bat egin behar izateagaz. Nire ustez, hori aitzindaria da, bere egunean aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzea izan zan lez, eta, hara, apurka-apurka, gaiztasunez, baina lortzen ari gara aurrekontuetan eta txosten guztietan genero-ikuspegi hori sartzen joan daitela. Jarrera horretan aitzindaria dala uste dot eta baita hurrengoan be, hau da, proponiduten dozuenean garrantzi handiko proiektu guztiek, eta beste proiektu batzuek karbono-aztarnearen eta klima-aldaketearen gaineko eragina sartu dagiela, eta uste dot oso zuzena eta egokia izango zala proiektuek hori eukitea. Eta Euzko Alderdi Jeltzaleak edo PSOEk jarten dabezan atxakiak, hau da, hori unada honetan ezin dala egin, gauzaezina dala, ba horregaz ni ez nator bat. Uste dot hori egiteko gaitasun ezin hobean gagozala, beharbada datorren urtean ez zariela azpiegituretatik hasiko eta beste sail batzuetan aurrera egingo dozuela, baina nik uste dot ondo baino hobeto sartu leitekezala aurrekontuetan karbono-aztarna horreek, eta herritar guztiek ikusi dagiela zer dakarren horrek. Nire ustez, hori egokia da.

Halanda be, ez nator bat zuek foru-enpresa publiko bat sortu gura izate horregaz, gai horren guztiaren inguruan behar egingo dauena. Gu ez gatoz bat EAJk eta Alderdi Sozialisteak daukien erakunde-sare horregaz; izan be, aurrekontuen aurreko Osoko Bilkuran esan neban moduan, 29 erakunde biltzen dauz: 11 merkataritza-soziedade, 5 merkataritza-soziedade partaidetu, GUFE, bi enpresa-erakunde publiko foral, 6 foru-fundazino, partzuergo bat eta ekintzailetzako funtsak eta kapitalak dagozan beste lau erakunde. Ia 760 milioiko aurrekontua, aurrekontu alternatiboa Aldundi honetan, 29 erakunde horreekaz. Halanda ze, gure ustez, ezin da beste barri bat sortu, ez litzateke onuragarria izango, eta ez deutse batere mesederik egiten bizkaitarrei. Gure ustez, Aldundiak berak izango leuke txosten horreek egiteko gaitasuna, aurrekontuen azterketa zehatza eginda bakarrik.

Eta udalentzako aholkularitza energetikoaren inguruan daroazuen azken atalari jagokonez be zuzena iruditzen jaku zuon planteamentuaren zati txiki bat, udalei, udal txikiei aholkua emotearen ingurukoa, zuk hemen adierazo dozun moduan. Ondo iruditzen jaku udalei aholkuak emotea, baina bigarren zatia (bulegoa dala dinozuna, auzo-komunidadeentzako arretea) uste dogu udaletik gauzatu behar dala, ez Aldunditik. Udalei baliabide ekonomikoak helarazotearen alde egongo ginateke gehiago, hareek sortu dagiezan auzokoei energia-hobekuntzen inguruko aholkularitza-bulego horreek. Aldundiak udalei eta auzokoei euren etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntza ekonomikoen lerro bat eranstea be jasoko leuke. Esate baterako, etxebizitza partikularretan eguzki-plakak jarteari buruz datorren Osoko Bilkuran guk ekarriko doguzan lerroak. Komunidade horreek hurrengo Osoko Bilkuran ikusiko doguz.

Halanda ze, gu, printzipioz, abstenidu egingo gara. Badinot, zure mozinoa egokia eta zuzena dala uste dot, baina bi alderdi horreetan, ulertuko dozunez, ez gatoz bat. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Y la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Yo veo como una buena noticia que aquí todos y todas por unanimidad veamos cuál es la importancia y la emergencia climática, así como la moción presentada por Elkarrekin Bizkaia, por lo que votaremos a favor.

Todos/as sabemos, y es un dato objetivo, cuál es la mochila de carbono que tenemos en Bizkaia, nos comemos tres planetas y solo tenemos uno, entonces eso significa que tenemos que cambiar a la fuerza los modos de vivir, de movernos y de consumir, si no queremos llegar a un colapso, y si eso lo dirige la Diputación Foral de Bizkaia y lo hace de forma planificada, lo hará de una manera sostenible y sin que nadie quede atrás, y ese es el objetivo que debemos alcanzar.

Dicho esto, también es bastante evidente cuáles son las carencias ambientales que tenemos en Bizkaia. La falta de agua y de saneamiento en algunas zonas, la necesidad de modificar la política forestal para evitar los riesgos de inundación, la necesidad de reducir de forma notable las emisiones de CO2 en las políticas de residuos, que ha mencionado el señor Benito cuáles son en Bizkaia, el enorme desacoplamiento energético y la gran dependencia de las energías fósiles... Por lo tanto, bueno, no hay que ser muy inteligente para saber que hay que dar algunos cambios.

Las cuestiones que plantean el señor Benito y Elkarrekin Bizkaia son

interesantes para realizar una monitorización, y si no están encaminadas a orientar las políticas públicas, porque lo que aquí ocurre es que una y otra vez en esta cámara nos dicen una cosa, otras veces otra, y parece que muchas veces bajo la palabra "sostenibilidad" se esconden cosas diferentes. Entonces, esta moción es muy adecuada, conveniente para hacer frente a eso. También tenemos que cambiar el metabolismo socioproductivo porque vivimos desacoplados/as del territorio. No estamos acoplados/as a nuestra capacidad, a nuestros recursos naturales, y lo necesitamos si queremos vivir de una manera más sostenible en un futuro, y porque lo necesitamos.

Las cuestiones que se mencionan en la moción. El primer punto es el cumplimiento de la ley, y ahí no sé qué problema hay con el cumplimiento de la Ley 4/2019. El 23 de septiembre de 2022 nos la presentaron y se nos informó desde el punto de vista normativo y de las líneas de acción de Gobierno, y ahí se hace referencia a lo que se ha llevado a cabo en materia de cambio climático. Y se han hecho algunas cosas, sí, pero las acciones son todavía muy lentas. Y a este respecto, me gustaría preguntar en esta cámara dónde está la información energética del Plan de Actuación a la que se refiere el artículo 14 de la Ley 4/2019 de la Diputación Foral de Bizkaia. ¿Dónde está? Yo no la conozco, ni en cuanto a su ejecución. ¿Dónde está el plan de movilidad de Bizkaia? La de Bizkaia, no la que hay que hacer pueblo a pueblo. Es decir, ¿dónde está la ejecución del artículo 24 de la Ley 4/2019 por parte de la Diputación Foral de Bizkaia? ¿Dónde está? No está. El alumbrado sostenible se ha implantado muy poco en la red foral de carreteras, y se han colocado algunos puntos de iluminación, pero todavía queda mucho por hacer, algo que también tiene que ver con la ejecución de la Ley 4/2019.

¿Dónde está el plan de gestión de residuos de Bizkaia? Pues sí, se está haciendo, pero ¿dónde está? Todavía no está hecho. Aquí los ritmos también son importantes. ¿Dónde está el plan de prevención de riesgos de Bizkaia teniendo en cuenta el cambio climático? ¿Dónde está? Y ese es el primer punto.

En cuanto al tercer punto, ¿qué porcentaje destina en los presupuestos la Diputación a acciones de emergencia climática? Pues perfectamente pertinente. ¿Cómo que hay esperar dos años para eso? Pero ¿qué clase de seriedad es esa? A los ayuntamientos se nos pedirá eso a partir del próximo mes de septiembre. Eso es lo que la señora Arantza Tapia va a pedir con respecto a la ejecución de la Agenda 2030 y eso alineado con los ODS, que se incorpore a los presupuestos municipales cómo está la ejecución de cada ODS; y yo siempre he dicho en Eudel que me parece bien, y aquí voy a decir lo mismo. Pero no es suficiente. No es suficiente, porque en esos presupuestos deberían establecerse otras casillas. Y debería decir: "¿Y qué hace en esta zona la Diputación Foral de Bizkaia? ¿Y el Gobierno Vasco?". Eso, por un lado. Y ¿cuáles son los ODS que se van a implantar ahora? Muchos de ellos están relacionados con la emergencia climática. El objetivo 13 es la ejecución de las medidas para hacer frente a la emergencia climática y a sus efectos. Ese es el 13, y se nos va a pedir a los ayuntamientos, y la Diputación no lo va a hacer en sus iniciativas. ¿Cómo es posible? ¿Que tiene que esperar dos años? Pero ¿para qué? ¿Que necesita más recursos humanos? Pues que los implante. ¿Que necesita más dinero? Que lo ponga. ¿Es esto o no una prioridad para la Diputación Foral de Bizkaia? Porque ahí está la clave. En esta cámara se declaró la emergencia climática. No es un tema baladí, la emergencia climática no es cualquier cosa, que Bizkaia esté en una situación de emergencia climática. Si esto es así, destinen todos los recursos necesarios para ello, para construir una sociedad digna entre todos y todas, y lo vuelvo a decir, para no dejar atrás a nadie. Porque no hacer esto hará que la gente se quede atrás, tanto las personas como las empresas.

Por lo tanto, yo creo que estamos en un momento en el que debemos ser serios/as y no veo nada que no se pueda hacer en la moción que ha planteado

Elkarrekin Bizkaia. Además, creo que es adecuada para ver en qué estamos, porque al final no vale para nada, aquí alguien dice una cosa, otro/a dice otra, pero lo que prevalece luego es la realidad, la realidad que tenemos. Y en ese sentido yo creo que la propuesta es del todo pertinente, y le digo que lo que he escuchado aquí tanto por parte del PSOE como del PNV son dificultades técnicas: esperar, que si no sé qué dentro de dos años... Pero ¿cómo, si andamos tarde ya para realizar muchas cosas? Y los nuevos proyectos que se plantean son los que hay que analizar, estudiar lo hecho en el pasado, analizarlo, y está bien, pero aquí la cuestión es que muchos de los nuevos proyectos que se plantean tampoco están alineados con la emergencia climática.

Por lo tanto, lo dicho, nuestro voto será favorable y espero que, aunque no se apruebe la moción, la Diputación tome nota y cumpla con su compromiso.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Arriola Alzola. Y a continuación, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Lehenik eta behin, eskerrak emon gura deutsedaz taldeei, bai erdibideko zuzenketa lez egindako proposamenakaitik, bai akordioa lortzen saiatzeko izan doguzan bilerakaitik, bai eurekaz batzartu ez arren, tira, euren eretxia emon dabenei. Arriola andreak adierazo dau aldeko botoa emongo dabela, eta uste dot, gainera, udal esperientziaren arau-esparruari buruzko gai zehatz batzuk sartu dauzala, mozino honetan nire ustez interesgarriak diran proposamen batzuen defentsea indartzeko. Era berean, eskerrak emon gura deutsadaz Andrade jaunari, nahi-ta ez daben aldeko botoa emongo; eskerrak emon gura deutsadaz proposamen batzuk aitzindaritzat hartu dauzalako. Egia da beste batzuetan ez genduana akordiorik lortu, enpresa publiko energetikoaren proposamen horretan, esaterako; argi dago hor ez daukaguna akordiorik.

Guk be ez dogu bat egiten Bizkaiko Foru Aldundiaren ereduagaz, hau da, soziedadeen satelite moltso handi horregaz. Baina, nire ustez, ona da bereiztea Administrazino Publikoak zuzenean egin leiken zeozer egiteko sortzen diran soziedadeak edo enpresa publiko bat sortzea zeozer egiteko, merkadu energetikoen barruan jarduteko, kasu honetan, eta hareen erregulazinoan paper garrantzitsua izateko.

Hori esanda, bi gaitan gelditu gura dot. Lehenengo eta behin, negoziazinoan. Erdibideko zuzenketea jaso genduanean, egia esan, hasiera baten erdibideko zuzenketa ona eretxi geuntsan, akordiorako tartea egoala uste genduan; jakina, proposamen bat aurkezten dogunean ez dogu kontraproposamena bere horretan onartu behar. Nire ustez, alkargune batera heltzen saiatu beharra daukagu. Eta, egia esan, hondinokarren zer falta izan dan argi-argi jakin barik nator eztabaida honetara, proposamenak gertu-gertukoak ziran-eta, eta barikuan aurreakordio bat izan genduan, arrastian apurtu zana. Eta bai, jasota geratu daiten aitatu gura dot gure taldean behintzat uko egin geuntsala energiaren enpresa publikoaren auziari, eta danok jakingo dozuen moduan, alderdi lez erakunde guztietan defendidu dogun proposamenik handienetakoa da, eta horri uko egin geuntsan.

Eta puntu oso bati be uko egin geuntsan, hau da, karbonorako aurrekontuari. Erdibidekoagaz egoan funtsezko alde bakarra zera zan “betetea” “beteten jarraitzea”-ren ordez, eta gero geratuko naz horretan. Eta klima-aldaketearen aurkako ekintzetara bideratutako aurrekontu hori aurrekontu-betearazpenean islatzea proponiduten zenduen. Hori onartu genduan, zenbateko hori aurrekontu-proiektuetan gehitzearen truke, tresna erabilgarria izan daiten, politika publikoak diseinetan diran unean islatuta egon

behar dauelako, hau da, aurrekontua diseinetan danean. Gainerakoak idazteko moduak ziran.

Beraz, nik, egia esan, asko sentiduten dot, uste dot gure aldetik gauza nahikori uko egin geuntsala, eta bai, uste dot Gobernua osotzen daben taldeek akordiora heltzeko arean ahalegin handiagoa egin behar ebela, eta, batez be, gero talde bietako bozeroaleei aurrekontu-eztabaidetan entzun beharko deutsegulako esaten ganbera honetan oposizinokook ez garala akordioetara heltzen, kanpainan gagozala... Eta sentiduten dot hori esan behar izatea, bilerak eraikitzaileak izan diralako. Tira, akordioak egunez egun gauzatzen dira, besoa jaso ez ezik luzatu be egiten da, eta hori, esan dodan moduan, egunean-egunean eregiten da.

Beste puntu baten be gelditu gura dot, denpora barik gelditu aurretik, hau da, lege bat betetearen inguruan daukagun ohiko lehia semantikoa da, betetea edo beteten jarraitzea. Nik uste dot gai honetan, zoritxarrez, ez egoala eztabaidarik. Ez dinot Foru Aldundia ahaleginik edo lanik egiten ari ez danik Lege hori beteteko, argi dago hori egiten ari dana talde bat sortu dalako, egiten ari danaren aktak dagozalako. Baina argi dago, era berean, ez dirana beteten Legeak ezarten dauzan datak eta epeak. Izan be, Lege hori Bizkaiko Foru Aldundian ezarteko diseinau dan ibilbide-orriak berak ez dauz jasoten, ez ditu islatzen Legeak ezarten dauzan epeak. Itaunean adibide batzuk jarri nebazan. Arriola andreak beste batzuk aitatu dauz. Arabere gehiago, legearen puntu bat dago: B kalifikazino txikiagoa daben eraikin publikoen % 40k puntu horren kalifikazino hori hobetu behar dabela, Legearen helburu hori. Eta zuzenean uko egin jako beteteari, bileretako akten arabera, sano garestia dalako. Tira, bada, nik uste dot une honetan, eta gai zehatz honetan, egokia zala garaiz eta behar zan moduan beteteaz berba egitea, ez da-eta egiten ari.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, hasi gaitezan hasieratik. Uste dot garrantzitsuena zera dala, eskerrak emon gura deutsaguzala Elkarrekin Bizkaia taldeari, lehen esan dogun moduan, mozino hau ekarri dauelako. Izan be, beste behin be, klima-aldaketearen aurkako gatazkea eta burrukea legegintzaldi honetako mahaiaren erdigunean jarten doguz. Hori esan dogu eta bat gatoz horregaz, eta eskertzen dogu barriro hona ekarri izana, horri buruz eztabaidatzen jarraitu daigun.

Gero, ondo esan dozun moduan, gitxi-gitxi falta izan jaku akordio batera heltzeko. Baina, normalean, akordio bat lortzen danean, bi aldeek edo gehiagok posible egiten dabelako izaten da, kasu honetan 3 alderdik, eta akordiorik lortzen ez danean, 3 alderdien arazoa be bada, ez bakarrarena. Guk be uste genduan akordio batera helduko ginala. Nire ustez, akordiorik lortu ez badogu ez da izan maminagaitik, ezpada formeagaitik. Barriro dinogu, uste dot oso garrantzitsua dala orain arte egindako lana onartzea. Klima-aldaketearen kasuan, onerako edo txarrerako, 2 + 2 ez dira lau.

Izan be, epe batzuk ezarri behar dira, kuantifikazino batzuk ezarri behar dira, baina ez da hain erraza taula lez jartea eta kuantifiketea. Garrantzitsuena aurrera egitea da, beharbada ez gurako geunken baizen arin, baina garrantzitsuena aurrera egiten jarraitzea da. Alde horretatik, nire ustez, funtsezkoa da nondik gatozan jakitea, nora goazan jakiteko. Eten barik egin behar da azterketea, Aldundia egiten ari dan moduan. Eta,

horren guztiaren gauzarik garrantzitsuena da Aldundia 1997. urterik hona ari dala lanean klima-aldaketearen aurkako burrukan, tribuna honetan esan deutsuedan lez, hau da, zuon alderdia agertoki politikoan sartu baino lehenagotik.

Urte honeetan guztietan hainbat azterketa egin dira, eta klima-aldaketearen aurka burrukatzeko hainbat neurri hartu dira, esaterako, lehen esan doguna, hau da, diputaduak zemendiaren 30eko Kontrolerako Osokoan zehaztu eutsuna. Berbarako, 2002an Bizkaiko iraunkortasunaren ebaluazinoa egin zan, eta aztarna ekologikoa kalkulau zan. 2006. urterik hona, mehatxatutako espezieak kontserbetako hainbat foru-dekretu onartu dira; laguntzak ezarri ziran udalentzat eta mankomunidadeentzat, energia-efizientziaren arloko jarduketetarako. 2013an, Energiaren Euskal Erakundeagaz (EEE) batera, Bizkairako 2020rako estrategia iraunkorra diseinau zan, foru, udal eta norbanako esparruei eragiten deutsena, eta helburua energia aurreztea eta eraginkortasun energetikoa sustatzea da, baita energia barriztagarriak sustatzea be.

Aplikau diran neurriek emoierak izan dabez. Esaterako, lehen aitatu doguna, 2015 eta 2020 artean 192.000 tona CO2 isurtea saihestu zala, eta 645.000 megawatt ordu/urte aurreztu ebela. Lehen Hegoaldeko Saihesbidearena aitatu dozu, baina konturatuko zara, era berean, klima-aldaketea dinamikoa dan lez, aldatzen ari dala. Harenbaten hori aurreikusita egongo zan pasetan ziran ibilgailuen mobikortasun mueteagaz eta igorten ebezan isuriakaz. Baina, dakizunez, eten barik aldatzen ari da, eta, zorionez, eraginkortasun energetiko handiagoa daben ibilgailu asko ateraten ari dira. Halanda ze, isuri horreek aurrezpen hori gastau egingo ebela esan dozu lehen, baina harenbaten horren aurretik aldatzen joango dira. Klima-aldaketea dinamikoa eta globala da, ezin dogu ikuspegi hori ahaztu.

Eta gero, amaitzeko, ikusiko dogu lau tresna nagusi daukaguzala klima-aldaketearen aurka burrukatzen jarraitzeko: EAEko 4/2019 Legea; lehenengo Legea, zuk be jakin beharko zeunkena, Espainiako lehenengo Legea, Klima Aldaketeari eta Trantsizino Energetikoari buruzko 7/2021 Legea; Europako Zuzentarauak daukaguz, eta, gero, Bizkaian be landu da Aldundiaren aitatu dogun jasangarritasun energetikoaren ibilbide-orria, EAEko Legeak ezarten dauzan energia-jasangarritasun eta -eraginkortasun helburuak lortzeko gauzatu behar diran jarduketa nagusiak identifiketan dauzana.

Halanda be, neurri onak al dira? Bai. Nahikoak al dira? Ez. Klima-aldaketea dinamikoa da, eta, horregaitik, Aldundiak lanean jarraitzen dau egunero klima-aldaketearen aurka burrukatzeko neurri barriak bilatzen. 2050erako karbonoan neutroa izango dan Bizkaia lortzeko bide onean gagoz, baina egunez egun beharren jarraitu behar dogu.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Beitia Zurinaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Sí, buenos días de nuevo. Muchas gracias, señora Presidenta.

Brevemente, creo que está todo dicho. Creo que hay que destacar de nuevo que hemos estado muy cerca de alcanzar el acuerdo, poner en valor el acuerdo y los esfuerzos que se han hecho para ello. Existen diferencias, pero no destacaría esas diferencias; creo que han sido las mínimas, a pesar de no haber llegado al acuerdo. Al fin y

al cabo, quisiera poner en valor los puntos de acuerdo. Tal y como ha señalado el señor Benito, el viernes casi alcanzamos el acuerdo, y creo que la diferencia o el desacuerdo más destacable para rechazar el acuerdo era poner o no en los presupuestos, o establecerlo o no en la ejecución.

En el resto existe el acuerdo, destacando algunas cuestiones diferentes. Entonces, creo que de una manera u otra hay una enmienda a la aprobación o no de la moción, y leída la enmienda se ve que la Diputación tiene voluntad de llevar adelante lo que aparece en la moción, en su justa medida, en su tiempo. Todos/as estamos de acuerdo, y en eso también llegamos al acuerdo con Podemos, que no es posible poner ese sistema de evaluación de un día para otro. Tiene que haber un tiempo, y en eso creo que, aunque sea una cosa urgente, de gravedad, hay que marcar unos tiempos, y en eso se puso un plazo de dos años por dicha razón.

Desde nuestro partido no estamos en contra de ningún sistema de evaluación que sea necesario implementar para calcular la huella de carbono. No, en la propia enmienda se puede ver que estamos de acuerdo, pero creemos que de una manera adecuada, dándonos un tiempo.

Y poco más que decir en cuanto a la moción. Algunas alusiones a las intervenciones realizadas por los grupos. Por ejemplo, el Partido Popular, sí de acuerdo, la enmienda o moción, perdón...

Barritzaileak edo interesgarriak izan ahal dira, baina zure alderdiari konbitea egiten deutsat proposamen bera egin daizuen gobernetan dozuen erkidegoetan, eta horrelan aitzindariak izango zarie horrelango politiketan, eta ez oposizinotik bakarrik.

Y en relación a lo que ha dicho EH Bildu, de acuerdo con la mayoría, no tengo nada en contra. Simplemente decir que ha puesto en valor todos los puntos en contra, y yo lo que pongo en valor es el acuerdo, y para ello creo que debemos cumplir la ley y creo que no hay que dudar de que la Diputación está cumpliendo la Ley. Otras cuestiones son que el problema que plantea la Ley es que requiere de un tiempo para su implementación, pero eso ocurre en la ley de la Diputación, o en cualquier otra ley. Ocurre también en los ayuntamientos, a pesar de que se quiera ir rápido, los plazos no son los que queremos. Ha preguntado usted si la Diputación está en contra o qué problema tiene para monitorizar la huella de carbono. La Diputación..., nosotros/as no estamos en contra, y lo pone en la enmienda. Es decir, si lo lee, “poner la huella”. Luego pueden surgir algunas dudas, pero algunas dudas, y, por eso hay que establecer unos plazos. Por ejemplo, el que pone para valorar las obras que se hacen o las infraestructuras, y para poner la huella de carbono, hay cosas que creemos que es bueno implementar, pero también tenemos que tener en cuenta que en este momento hay un medio ambiente o un impacto ambiental múltiple, que son cuestiones que hay que añadir y que todo es susceptible de ser examinado.

Pongo en valor, aunque no haya habido un acuerdo, el hecho de que vamos por el mismo camino y para alabar la labor de la Diputación. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Beitia Zurinaga. El representante del Grupo Mixto-Partido... no va a intervenir. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí, buenos días de nuevo.

Bueno, dicen ustedes que sí existe compromiso e implicación, y no lo pongo en duda, pero también tengo claro que el nivel de ese compromiso y esa implicación es bajo. Y si estamos ante una situación de emergencia climática no disponemos de todo el tiempo que quisiéramos para hacer cosas, o no tenemos tiempo para avanzar con compromisos tibios o débiles. Se requiere de un compromiso y una implicación fuertes, dirigiendo a ello todos los recursos humanos y económicos que se requieran. Y hoy por hoy, eso no se da. Y para que eso se pueda dar, es interesante la moción que propone Elkarrekin Bizkaia. ¿Por qué? Porque sirve para tener una foto real, y no que, si uno dice esto, otro dice esto... No, es para tener una foto real, para que el análisis de los presupuestos sea también exacto, y ver hasta dónde está alineado o no lo está con las acciones de emergencia climática.

Eso lo mencionan también en su enmienda, la voluntad de hacer dentro de dos años o no sé cuánto tiempo. Les digo de nuevo: no. Hay que hacerlo ya, porque algunos proyectos que ya proponen ustedes no están alineados con la emergencia climática. Y porque hay que destinar ese dinero a otra cosa. ¿Por qué? Porque si no eso son los denominados “aukeren kosteak”. Una vez que se hacen algunas inversiones que son inadecuadas o que no ayudan nada, es más, que aumentan la emergencia climática y la crisis de biodiversidad, eso no es bueno ni para Bizkaia ni para la ciudadanía vizcaína. Lo que hay que hacer es poner recursos, ponerlos donde haga falta, para alcanzar una Bizkaia justa y mejor para todos y todas.

Y creo que por ahí iba la moción, que ese era el objetivo de la moción. No entiendo por qué hay tanta falta de voluntad para aceptar lo que hay, e insisto, cuando la Diputación Foral de Bizkaia también hace sus políticas públicas, y no solo desde el Departamento de Sostenibilidad, sino también desde otros Departamentos, tienen mucho que ver con el aumento de la emergencia climática, por ejemplo, las que se hacen desde el planeamiento. Es decir, cuando se elaboran Planes Parciales, o PTPs, o Planes Sectoriales el hecho de dónde se ubican los espacios para el empleo, y para qué tipo de empleo, dónde los alojamientos, dónde los servicios..., todo ello incide, entre otras cosas, en la movilidad. Y la movilidad es precisamente uno de los factores más relevantes que influyen en la emergencia climática.

Entonces, todavía hay muchas cosas por hacer y muchos pasos que dar. Esos pasos deben ser más fuertes y más rápidos, deben ser pasos dados con determinación. Tal y como he dicho antes, para que haya un acoplamiento entre el territorio físico en el que vivimos y nuestra actividad o nuestras formas de vivir. Y eso es imprescindible y debe hacerse ahora, empezando desde aquí y desde ahora, pero de forma seria.

No voy a alargarme mucho, pero sí decir que en esa herramienta que se nos va a ofrecer a los ayuntamientos, en esa herramienta que se nos va a ofrecer desde Eudel y en esa herramienta que Arantza Tapia relaciona con la ejecución de la Agenda 2030, ¿qué va a aparecer? ¿Va a aparecer, entre otras cosas, el esfuerzo municipal para la ejecución de cada ODS en los presupuestos? Esta herramienta sirve de monitorización de lo que se hace desde la Diputación Foral de Bizkaia. ¿Qué aparecerá ahí? Entre otras cosas, ¿cómo está el agua y el saneamiento, qué esfuerzo hacemos para que esto se extienda a toda Bizkaia? ¿Qué aparecerá? ¿Cómo está en Bizkaia la energía accesible y sostenible?

El octavo. ¿El desarrollo económico sostenible está ligado a toda Bizkaia? ¿Cuál es el esfuerzo realizado en ello? ¿Son infraestructuras resilientes o no lo son? ¿Tenemos ciudades y comunidades sostenibles? ¿Hasta qué punto? ¿Qué inversión realizamos para ello?

¿Fomentamos formas de consumo y producción sostenibles, o no? ¿Tenemos implantadas medidas eficaces para hacer frente a la emergencia climática y sus efectos? ¿Hasta qué punto? ¿Fomentamos el uso sostenible de los ecosistemas terrestres con protección?

Es decir, yo creo que como punto de partida es absolutamente útil lo que Eudel ha preparado, por lo que les recomiendo que se incorporen también desde la Diputación Foral de Bizkaia en lo que existe, en sus proyectos de presupuestos y en la puesta en marcha de políticas públicas sostenibles. En Bizkaia, para hacer una Bizkaia verde, para todos/as y con todos/as, sin que nadie se quede atrás, empezando desde hoy, porque ya andamos tarde.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Arriola Alzola. Y una vez finalizado el debate, sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado ha sido el siguiente: ha habido un total de 47 votos; han sido 13 votos a favor; votos en contra han sido 32. Ha habido 2 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

El cuarto punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2022/0002820)
Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)
Asunto: La transición ecológica que deben realizar las empresas.
Documento Principal: (R.E.11/E/2022/0002820)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (72A)
Expediente: (11/B/20/0004012)

4.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2022/0002820SE)
Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)
Gaia: Enpresek egin beharreko trantsizio ekologikoa
Dokumentu nagusia: (11/E/2022/0002820SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (72A)
Espedientea: (11/B/20/0004012)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí. Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as de nuevo.

La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, se refirió a los programas de subvenciones del Departamento en materia de innovación. Entre ellos, está el programa Transición digital y verde. Y explicó cómo el objetivo de este programa

está esencialmente ligado a la digitalización y a la economía circular.

EH Bildu considera que para que las empresas vizcaínas puedan afrontar la transición ecológica hay que ir más allá del mero apoyo a este tipo de proyectos. Solo con eso no es suficiente. Y más allá en dos sentidos. Por un lado, porque debemos impulsar proyectos que vayan más allá de la economía circular; por otro, porque debemos ir más allá de las subvenciones, porque necesitamos planificaciones concretas vinculadas a la situación específica de los diferentes sectores, que les ofrecen alternativas.

Y eso es lo que pedimos en la moción. En la moción solicitamos que se analicen los riesgos y las vulnerabilidades del cambio climático y que se desarrollen las herramientas adecuadas para que esas estrategias se integren en las estrategias empresariales y que los sectores empresariales de Bizkaia se adecúen al cambio climático, tomando como impulso y punto de partida la herramienta o línea de guía que elabora la Diputación Foral de Bizkaia, trabajando siempre en común con ellos, es decir, no de forma autónoma, sino con el fin de tener una planificación compartida y conjunta con las empresas.

Y el segundo punto es que, en base al citado diagnóstico, que las empresas de cada sector elaboren un plan de medidas para hacer frente a la emergencia climática y a la transición energética, determinando la financiación necesaria. Miren, esto que pedimos no es algo nuevo, no es algo que la Administración Pública no pueda hacer. En otros sitios ya estamos haciendo cosas similares y nosotros/as, viendo el tejido industrial y empresarial del que disponemos aquí, consideramos que es una cuestión que debería estar en primera línea entre las tareas de la Diputación Foral de Bizkaia.

Seguramente lo sabrán, pero también he traído esto para compartirlo entre todos/as. Es decir, en el estado español, bueno, quizás algunos/as lo conocerán, pero lo leeré: “Klima-aldaketara egokitzea enpresa-estrategian txertatzea. Sektore pribaduko inpaktuak eta kalteberatasuna ebaluetako gida metodologikoa”. Esto lo realizó el gobierno de España en 2014 y desde entonces, año tras año, y en colaboración con empresas sectoriales, lo que hace es desarrollarlo. Las cuestiones que aquí se mencionan son las que debería recoger una planificación de este tipo, es decir, por un lado, realizar una evaluación de la vulnerabilidad aplicando la metodología del análisis, y por otro lado, un análisis sectorial y caso por caso.

Es decir, ¿qué hay que hacer en el sector de la construcción?, ¿qué hay que hacer en el sector energético?, ¿qué hay que hacer en el sector primario?, ¿qué hay que hacer en el sector turístico?, ¿qué hay que hacer en el sector del transporte? Y, bueno, esto como guia está bien, pero luego hay que aterrizar a la realidad y al tejido empresarial que tiene cada territorio. Eso, al final, ¿qué es lo que genera? Al final, y vinculado a cada uno de los sectores de actividad, lo que supone es cuál es el sector, cuáles son las proyecciones climáticas, cuáles son el análisis de la vulnerabilidad con respecto a ese sector, cuáles son los riesgos, qué capacidad tiene ese sector o empresa concreta para la adaptación, y si no tiene qué se hará con ella, y luego, el análisis de la vulnerabilidad.

Luego, se indica también la cantidad de dinero que se requiere para hacerlo y las capacidades de cada empresa para afrontarlo, y lo que va a quedar en manos de la Administración y de cada una de las empresas.

Algo parecido, o muy parecido, es lo que pedimos para Bizkaia y que, hoy por hoy, sabemos que no existe. Por eso decimos, “¡oigan!, es hora de ponernos las pilas”. Aquí no tenemos tanto tiempo como queremos, aquí la realidad y el día a día nos impone que la emergencia climática está aquí, y también se declaró en esta Cámara. Todos/as los/as dirigentes mundiales andan queriendo adoptar medidas concretas al

respecto, y nos parece que la Diputación Foral de Bizkaia está por detrás, cojeando y sin darle al tema la prioridad que requiere. Y por eso decimos “oigan, no queremos dejar a nadie atrás”.

Y si ese es el objetivo, habrá que hacer algo aquí, algo habrá que planificar, ¿sí? Y eso es precisamente lo que pedimos y, como se ha dicho, que se haga esa planificación junto con las empresas, evidentemente. Y en colaboración con las empresas. ¿Por qué? Porque también tienen que tener siempre un proceso ascendente. También para ser lo más amplio posible y lo más realista posible, porque a veces las planificaciones quedan bien sobre el papel, pero luego hay que cumplirlas. Y para ser realistas es imprescindible hacerlo de forma conjunta con las empresas. Pero guiada por la Administración. ¿Por qué? Porque seguramente las empresas no tendrán la capacidad para ello por sí mismas. Entendemos que es un buen trabajo que corresponde a la Administración, como se ha dicho, pero metiendo en la olla todo ese trabajo de la mano de las empresas. Identificar lo que sea significativo, lo que es estratégico, lo que es eficaz, identificarlo restableciéndolo y poniendo en ello los dineros y los sueldos para que realmente el tejido económico de Bizkaia sea competitivo, progresivo y de manera que pueda afrontar los retos que se avecinan. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. Como los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han presentado una enmienda, tiene la palabra en este momento el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo a todos/as.

Gaur hemen planteetan dana funtsezko gaia da, baita zentrala be, bai gizarte osoarentzat, bai gure erakunde publikoentzat, eta baita gure produkzino-sarearentzat be, eta larrialdi klimatikoari eta, beraz, trantsizino ekologikoari modu justuan aurre egiteko moduari buruzko eztabaidea da, inor atzean itxi barik eta, jakina, gure industria-sarea kaltetu barik.

Eta erronka hori guztiz zeharkakoa da; zeharkakoa gobernuko maila guztiak inpliketan dauzalako. Europar Batasunetik hasi (bai jagokozan zuzentarau eta araudiakaz, eta 2030erako ezarri dogun helburuagaz, hau da, isuriak gitxienez % 55 murriztea) eta hurren dagoan udal- edo toki-eremuraino. Jakina, Espainiako Gobernua be tartean dago, aurreko agerraldi baten aitatu dan moduan, alde horretatik lan handia egiten ari da-eta. Izan be, Klima Aldaketeari eta Trantsizino Energetikoari buruzko Legea bultzatu dau. Eusko Jaurlaritzea be hor dago, Mobikortasun Iraunkorrari eta Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legeakaz. Jakina, Foru Gobernua be bai, azken Kontrolerako Osokoan azaldu ebazan-eta, foru-diputaduen bitartez, arlo horretan egiten ari diran jarduerak.

Eta bat gatoz proposamena egin dauen taldeagaz: egiten diran jarduerak ez ezik, erritmoa eta denporea be funtsezkoak dira esparru horretan. Eta zeharkakoa dala aitatu dau, eta zeharkakoa da lurraldeko produkzino-sektore guztiei eragiten deutselako, era batera edo bestera, kasu batzuetan modu zuzenagoan, beste batzuetan zeharka. Horreek guztiek ekoizpen jasangarriago baterantza jo behar dabe. Ekoizpen horrek ingurumen-inpaktua minimizauko dau, deskarbonizazinoa bultzatuko dau eta gero eta energia-eraginkortasun handiagoa izango dau. Gainera, jakina, energia barriztagarrien erabilerearen aldeko apustu irmea egin behar da, gero eta autokontsumo energetiko handiagoa eta ekonomia zirkularra bultzatzeaz gainera.

Eta erronka horretan, biak, erakundeek eta industriak alkarregaz joan beharra daukie, industriak gure gizarteen aztarna ekologikoan daukan eragina agirikoa da-eta, eta, beraz, erronka horretan ezinbestekoa da daukien zeregina funtsezkoa izatea. Eta, jakina, baita industriak gure ekonomian daukan papera funtsezkoa dalako be, eta gero eta rol protagonisteagoak izan behar dauelako. Beraz, erronka horrek ezin dau ekarri gure produkzino-sarearen ahultasuna, ezpada kontrakoa; hori barrikuntza-, aukera- eta lehiakortasun-faktore bihurtu behar dogu, eta gure lurralde osoan eragina izango daben ezagutzea, balio erantsia eta indargunea sortu behar dauz.

Eta, jakina, horretan guztian badago zeozer agirikoa dana, proposamena egin dauen taldearen proposamenaren munean dagoana, baina baita guk aurkeztu dogun zuzenketearen munean eta Foru Aldundiaren jardunaren munean be. Izan be, aitatu dogun bidean aurrera egiteko industria osoa eraldatu behar bada be, enpresa guztiek ez dabe ez abiapuntu bera, ez baliabide berberak, ez behar berberak, ez egokitzeko gaitasun bera. Eta hori oso kontuan hartu beharreko inguruabarra da, ez dogu-eta gura trantsizino ekologikoak txikienen indarbakotzea ekarri dagiala edo bi abiaduratan aurrera egitea.

Horregaitik, egoki erexten deutsagu erakundeek, eta, hain zuzen be, Foru Aldundiak laguntza-programak eta jarduera espezifikoak egiteari, trantsizino ekologikoaren arloan eta trantsizino energetikoaren arloan laguntzeko, bultzatzeko eta aholkuak emoteko, eta programa horreek, laguntza-lerro horreek enpresa txiki eta ertainei berenberegi bideratzeari, euren prozesuak barritzen laguntzeko, euren aztarna ekologikoa minimizetan laguntzeko, ekonomia zirkularrean integretako, eta hori guztia, lehen esan dogun lez, lehiakortasun-, barrikuntza- eta aukera-faktore bihurtu daiten.

Eta, alde horretatik, azken Kontrolerako Osokoan aitatu zan moduan, Bizkaiko Foru Aldundia daborduko gauzatzen ari da esan doguna, hau da, laguntza ekonomikoko lerroak, dirulaguntzak, laguntza- eta babes-programak bitarteko eragileen bidez, aholkularitzearen bidez, analisian laguntzea emonda, sentiberatzea, etab. Hori guztia adierazo dogun helburu horregaz.

Eta, gainera, hori guztia esparru global baten barruan kokatuta dago, erredundantea bada be. Hainbat gairen aldeko apustua egiteko esparru global baten, esate baterako, energia garbi barrien erabilerea, edo mobikortasun iraunkorraren sustapena, Energy Intelligence Center, Automotive Intelligence Center eta Hidrogenoaren Korridorea lako proiektuakaz. Hau da, proiektu barritzaileak dira, eta lurraldeko ekosistema produktibo osoan eragin sustatzaile handia eta aldaketarako eragina izan behar dabe. Eta, jakina, hori guztia lurraldeko enpresa txiki eta ertainen onerako izan daiten lan egin behar dala.

Hori guztia kontuan hartuta, eta, gure ustez, proposamenagaz, mozinoan bertan egiten dan proposamenaren espirituagaz bat eginda, Euzko Alderdi Jeltzaleagaz batera zuzenketa bat aurkeztu dogu, Bizkaiko Foru Aldundiari bide horretan eragiteko eta sakontzeko eskatzen deutsana. Lehenik eta behin, enpresa txiki eta ertainei lagundu degiela larrialdi klimatikoaren aurrean daben kalteberatasunari eta enpresearen beraren estrategietan horri aurre egiteko jarduerak sartzeari buruzko diagnostikoa egin dagien. Horrelan, horrek guztiak balioko dau enpresa txiki eta ertainek gida eta bultzada lez erabili dagien, beharrezkoa dan trantsizino ekologikoa eta energetikoa gauzatzeko egokitzapenean.

Eta, bigarrenik, lehenengo puntuaren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak enpresa txiki eta ertainei lagundu beharko deutse neurri-plana egiten eta larrialdi klimatikoari aurre egiteko eta trantsizino ekologiko eta energetiko horri aurre egiteko proiektuak martxan ipinten. Aurkeztu dogun zuzenketearen 2 puntuak dira.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

EH Bildu ha presentado una moción derivada de una interpelación en relación a la transición ecológica de las empresas vizcaínas con dos propuestas concretas; por un lado, la elaboración de un diagnóstico que ayude a las empresas vizcaínas a analizar los riesgos y debilidades del cambio climático; y, por otro lado, que las empresas de cada sector elaboren un plan para hacer frente a la emergencia climática y a la transición energética, a partir de ese diagnóstico.

Eta apur bat testuinguruan jartearren, eta aurreko Kontrolerako Osokoan gogorarazo zan moduan, eta gaur egun izapidetze-fasean dagoan Trantsizino Energetikoaren eta Klima Aldaketearen Legearen aurreproiektuan islatzen dan moduan, Euskadik ibilbide luzea egin dau energia- eta industria-politiketan eta 2002tik hona klima-arloan, eta horrek eskualde erreferente bihurtu dau gai horreetan, batez be euskal ekonomiak industria-izaera handia daukalako; industria-politikea ezinbesteko tresna bihurtu da klima-neutraltasunerako trantsizinoa bideratzeko.

Testuinguru horretan, Ekonomia Sustatzeko Sailak industria-sektorean trantsizino energetikoa sustatzeko eta produktuen eta zerbitzuen ingurumen-inpaktua (enpresentzako lehiakortasun-faktore giltzarria da-eta) minimizetako helburuagaz sustatzen dauzan jarduerak eta proiektuak ezagutzen eta aztertzen aritu gara. Aitatu diran hainbat muetatako proiektuak, esaterako: trantsizino energetikorako Energy Intelligence Center edo Global Smart Green Grids Innovation Hub laguntzea Hidrogenoaren Korridorerako.

Gai horretan sakonduta, eta askotan errepetidu dan lez, Ekonomia Sustatzeko Sailak ETEetan jarten dau lehentasuna, hau da, gure lurraldeko segmentu nagusia osotzen daben enpresen moltsoan. Eta, alde horretatik, Sailak urrats garrantzitsuak emon dauz 2021etik hona; esaterako, dirulaguntzen programa barri bat argitaratu dau, eta hor enpresa txiki eta ertainentzako espektro zabaleko ingurumen-barrikuntzea be sartu da, ekintza errealistakaz, eta ingurumena gehiago errespetetan dauen eredu baterako bidea edegi dau.

Horrezaz gainera, kontuan hartuta enpresa txikienek babesa eta gidaritzea behar dabezala eta ingurumenaren eragin negatiborik ez daben negozio-ereduetara bideratuak izan daitezala, sensibilizazino- eta prestakuntza-saioak antolatzen dira.

Laguntza horreen guztien helburua Bizkaiko enpresetan proiektu zehatzak bultzatzea da, euren produktuak, eragiketak eta negozio-ereduak ingurumenaren eta energiaren jasangarritasunerantza eraldatu dagiezan.

Hasieran adierazo dodan moduan, EH Bilduk proponidutako mozinoak Bizkaiko enpresei trantsizino energetiko horretan eta klima-aldaketearen aurkako burrukan aurrera egiteko aukerea emongo deutsen proiektuen tipologia zabaltzea proponiduten dau. Proposamen horregaz bat dator gure taldea, beti be enpresa txiki eta

ertainei zuzenduta badago, hori da-eta, lehen esan dodan moduan, mueta horretako laguntza-programak garatzeko Ekonomia Sustatzeko Sailaren segmentu nagusia edo lehentasunezkoa.

Eta, era berean, Sailaren ohiko jarduera-ildoari jarraituta, eta barriro dinot, enpresa txiki eta ertainei jagokenez, proiektua gauzatzen laguntzeaz gain, hasierako egoera aztertzetik abiauta, epe labur, ertain eta luzerako helburuak zehazteko balioko dauen plan bat egiten laguntzeko planteamentu horri egoki erexten deutsagu, garatu beharreko proiektu zehatzak identifikauta eta Aldundiak bere proiektuak abian jarteko daukan laguntza zabalduta.

Horregaitik, proponiduten diran neurriakaz bat gatozalako, baina beti be enpresa txiki eta ertainei zuzenduta badagoz, Alderdi Sozialisteagaz batera osoko zuzenketea aurkeztu dogu, eta, horren bidez, honako hau onartu gura dogu: batetik, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea klima-aldaketearen arriskuak eta kalteberatasuna aztertzeko eta enpresearen beraren estrategietan txertatzeko aukerea emoten daben tresnak ikertzeko diagnostikoa egiten daben Bizkaiko enpresa txiki eta ertainei lagundu degiela.

Eta, bestetik, Aldundiari eskatzea, diagnostiko horretan oinarrituta, klima-larrialdiari eta trantsizino energetikoari aurre egiteko neurri-plana egiten lagundu degiela enpresa txiki eta ertainei, eta plan horretatik eratorritako proiektuak abiarazoten lagundu degiela.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Ziurbakotasun garaiak bizi doguz, ez da hori gauza barria. Horrelan da eta horrelan bizi dogu danok. Azken urteotan, Bizkaiko gizarteak Covid-19aren pandemiak eragin deuskun ezegonkortasunaren astindua jasan dau. Ziurbakotasun horrek nabarmen egin dau gora Ukraina inbadidu ondoren, hori bai, ahaztu barik hornidura-kateak apurtu izanak energia-merkaduetan eta gure industria-sarean izan dauen eragina. Eta hori guztia nahikoa ez balitz, gaur egun aldaketa sakonak jazoten ari garan honetan inflazino handiagaz biziten ohitzen ari gara, hau da, hornidura-kateen ahuleziek prezioen maila orokorraren igoerea eragin dabe, esan deutsuedan moduan, eta, batez be, ekonomiaren hainbat alderditan bizi izan dan interbentzino-indarraren ondorioz.

Testuinguru gatx honetan kokatu behar dogu gaur eztabaidatzen ari garan mozinoa eta aurkeztutako zuzenketea. Beharbada, gure buruari egin beharko geunskion lehenengo galderea klima-aldaketearen fenomenoak gure ekonomiarentzat dakarren arriskuaren ingurukoa da. Erantzuna agirikoa eta baiezkoa da; eragina dauka, jakina, eta asko. Badakigu klima-aldaketek eragin zuzena izango dabena enpresetan. Zelan? Berbarako, azpiegituretan eta inbersinoetan. Izan be, harenbaten gure legeriak bere irismena zabalduko dau, gizarteak arlo horretan kontzientziazino handiagoa lortzen dauen neurrian. Izan be, ekimen ugari dagoz daborduko eta, beharbada, ezagunena Kyotoko Protokoloa da, baina beste esparru batzuetan be aurrerapen nabarmenak egiten ari dira. Izan be, erregulazinoagaz, ospeagaz edo klima-jarraibideen aldaketakaz lotutako arrisku horreek kudeatzeko beharrak gai hori gero eta gehiago kontuan hartzea ekarriko dau

Bizkaiko enpresen radarretan. Horretan bat gatoz danok.

Halanda ze, klima-aldaketea erronka bat da enpresentzat, baina baita aukerea be. Erronka horrek prozesu askori eragingo deutse, eta, beraz, enpresen kostuetan eragina izango dau; izan be, lehengai edo energia-mueta jakin batzuen erabilerea (erregai fosiletatik datozanak, esaterako) murriztu egin beharko dabe; eta prozesuak, produktuak edo zerbitzuak egokitu egin beharko dabez epe labur eta ertainean. Horretarako, enpresek karbono gitxiko ekonomiaren garapena ahalbidetuko daben barrikuntza-sistemetan inbertidu beharko dabe.

Baina erronka horretaz jaubetuta, enpresentzako aukerea be bada, baita mailarik oinarrizkoenean be. Izan be, erregai jakin batzuen kontsumoa murrizteak, esaterako, epe luzeko kostuetan aurrezpen handiak ekarri leiz. Izan be, euskal enpresa batzuk zeregin aktiboa beteten ari dira produktuen eta zerbitzuen garapenean, eta karbono-isuri maila bajuko ekonomia baten lehen fasea eratzen ari dira, klima-aldaketearen arazoari aurre egiteko konponbideak hartzen dabezan enpresetan sortuko diran egungo eta etorkizuneko enpleoei buruz berba ez egiteagaitik.

Izan be, horrek guztiak interes handia sortzen dau inbertitzaileen eta finantza-erakundeen artean, eta enpresek kapitala eta balioa sortzeko aukerak eskuratzeko daben premina gero eta handiagoa autortzen dabe. Halanda ze, Bizkairako proiekzino handiko gaia da, etorkizun hurbilean sustatzaile-elementua izan leitekena. Eta gure helburua, Foru Aldundiaren helburua izan beharko litzateke Bizkaia industria-lehiakortasun jasangarri barriaren buru izan daiten oinarriak prestetan joatea, lehiakortasun horrek ingurumen-erronkeari erantzun degion. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da indarrak batzea, enpresen eta sektore publikoaren helburuak alkartzea, trantsizino berde, zentzundun eta ordenau bat bizkortuko daben epe ertaineko estrategiakaz, progresiboa eta ahalik eta kostu sozial txikienagaz, jasangarritasun handiagoa eskatzen dauen mundu baten lehiatzeko prestau gaitezan.

Bizkaiko ekonomia ulertzeko modu barri bat. Bertan barrikuntzea funtsezkoa izango da planteetan diran erronkak eta aukerak batzea ziurtatzeko eta, batez be, horretan ez da enpresarik atzean itxiko, gehien baten gure ETEak, ziklo-aldaketa bat dagoan bakotxean gaiztasun gehien izaten dabezanak dira-eta. Horren haritik, indar handiagoa hartzen dau gure foraltasuna erabilteak, eta horrek ekoizpenaren eta kontsumoaren arloan aukera garbiagoen garapena sustatzeko biztugarri barriak bultzatzen dauz, ondo diseinauak eta besteakandik bereiziak. Eta, jakina, sortuko diran aukerak gure ekintzailetzara bideratzen jakitea, besteak beste, ingurumen-babesaren eremuan, hondakinen kudeaketan, energia-eraginkortasunean eta ekonomia zirkularrean.

Amaituko dot. Ziurbakotasun eta aldaketa handiko testuinguru baten, beharrezkoa da ehun ekonomikoaren bilakaerea ulertzea. Horregaitik, azkenik, idea hau azpimarratu gura dot: helburu hori lortzeko beharrezkoa da lortu gura dogun etorkizuna zeharkako ikuspegiagaz lantzea, eta etorkizun hurbilean etorriko diran erronka konplejuetan konponbide barritzaileak bilatu daiguzan alkarlanean jarduteko beharraz jaubetzea.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Y el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, ba, eztabaida honetan politika industriala eta klimatikoa nahasten doguz, eta horrek ezin dau eztabaida erraza ekarri. Baina nire ustez, gure eretxian mozinoa interesgarria da, eta labur definidu geinke mozino hori urrats txiki baina irme lez, proposamen batzuk jasoten dauzala uste dot-eta; tira, bi proposamen zehatz, sano baliagarriak izango liratekenak trantsizino horri ekiteko Bizkairako sektore garrantzitsuenetako baten, baina baita produkzino-ereduaren trantsizino-neurri horreek ezartea gatxena dan sektoreetako baten be. Horregaitik, gure taldeak mozino honen alde bozkatuko dau.

Nire ustez, industria-sektoreko klima-aldaketearen arriskuen gaia serio hartu behar dabe bai administrazino publikoek eta bai industria-sektoreak berak be. Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenen arabera, tenperaturearen igoereak eta prezipitazinoen jatsiereak elektrizidadearen sorkuntzan eraginkortasuna jastea ekarri leie. Horrelan dator txostenetan, edo prozesu industrialen sorreran bertan. Era berean, musturreko gertakari klimatikoak, uriolak, sikateak eta abar ugaritzeak industria-instalazinoetan kalte fisikoak eragin leikezala dino. Izan be, Ihoberen esanetan, datozan urteetan udalerri batzuetako industria-lurzoruaren % 20 urpean geratu leiteken lurzoru bihurtuko da (Erandio, esaterako), eta horrek, logikoa dan lez, arriskuan jarten dau industria askoren bideragarritasuna edo etorkizuna.

Hori esanda, argi dago industria-sektorean isuriak murriztea garrantzitsua dana, baina kontu handia izan behar dogu gai horren atzean beti dagoan arrisku bategaz, hau da, isurien murrizketa hori sektorearen benetako eraldaketearen ondorioz gertatu daitela, eta ez industria-sektorearen beraren hondaketeagaitik, edo, ondorioz, sektore horrek Bizkaiko ekonomian daukan galereagaitik. Eta bigarren kasu hori ez da gitxi erextekoa, eta kontuan hartu beharrekoa da. Bizkaian, industria-sektoreko enpresen itxierea eta lanpostuen galerea etenbakoa da. INEren datuen arabera, azken bi hamarkadetan industria-sektorean 36.000 lanpostu galdu dira guztira. Eta, aldi berean, ikusten dogu Gobernuaren politika publikoek ekonomiaren terziarizazinoaren aldeko apustu sendoa egiten dabela, eta ahalegin handiak egiten dirala sektore turistikoan, finantzen sektorean, edo fintech deitzen dan horretan, ekitaldi handietan, etab. Nire ustez, hori beti jagon beharreko arriskua da industria-sektorean trantsizino-politikak ezarteko edo diseinetako orduan.

Itaunaren edo Bizkaiko Foru Aldundia hartzen ari dan eta itaunean aitatzen diran neurrien inguruan iruzkin batzuk egitea gustauko litxakigu. Lehenik eta behin, joan dan astean Batzar Nagusietan eta Eskaeretarako Batzordean aurkeztu zan “Bakea eta duintasuna” alkartearen txostena idatzi ebenek egin eben moduan, txosten horretan ondorioztau eben Aldundiaren politiken hazkunde ekonomikoa eragiletzat eta ezinbesteko baldintzatzat joten dala garapen jasangarriko gainerako helburuak, energia-politika barriztagarria, lan duina, osasuna, bardintasuna eta abar bete daitezan. Era berean, uste dogu industria-sektorea deskarbonizetako aitatutako estrategia hazkundea sustatzera bideratzen dala ia bere osotasunean, eta produkzino-ereduaren trantsizinoa negozio-eremu lez ulertzen dala, etorkizun hurbilean edo gaur egun bertan, ba, errentagarriagoa izango dalako.

Eta horrek, gure ustez, bi premisa dakarz, ez diranak bape argiak. Lehenengoa, industriarentzat ekoizpen-metodo iraunkorragoak erabiltea errentagarriagoa izango dala, eta hori zalantzagarria da, industria-prozesu horreek kanpora ateratea be badagoalako. Eta, bigarrenik, etenbako barrikuntzea isuriak murriztera zuzenduko dala beti, eta ez beste helburu batera, hau da, etekin korporatiboa handitzera: produkzino-prozesuak hobetzea, teknikak, edo ekoizpena ugaritzea.

Bigarrenik, bat gatoz Arriola andreak hasieran egin dauen azalpenagaz, hau da, dirulaguntzen eredutik harago joan behar garala. Nik beherapen fiskalen eredua gehituko neuke, bai eta lankidetza publiko-pribaduko modu horreek be, esate baterako, EIC edo AIC zentroak sortzea. Horri jagokonez, gure taldeak behin baino gehiagotan defendidu dau. Uste dogu administrazino publikoak uko egiten ari jakozala zeregin garrantzitsuago bat izateari, lidergo lez definidu geinken eginkizun bati. Eta, ostera, aukeratzen ari diran hainbat politikek administrazino publikoak mendekoago jarten dabez, hau da, dirulaguntza horreen bidez proiektu zehatzetarako likidezia-igorle edo barrikuntzan inbertiduten dauenarentzako zerga-sarien kudeatzaile bihurtzen dabez. Esaterako, Soziedadeen gaineko Zergearen 64.bis artikulua, barrikuntzea sustatu gura dauena. Baina atzean be ez dago inongo kontrolik proiektu horreen interes sozialari buruz, ezta proiektu horreek laguntza fiskala behar izateari buruz be, kasu batzuetan daborduko errentagarriak izango diran barrikuntza-proiektuak izan leitekezelako, eta, beraz, ez dabe inongo bultzadarik behar.

Faltan asmetan doguz industriara bideratutako foru-politika publikoak, eta, batez be produkzino-ereduaren trantsizinoa, asmo handiagoko inbersino publikoa, zuzenagoa eta interes komuneko proiektuetan argia, garrantzi eta leba handiagoko plangintza estrategikoa, eta proiektu estrategikoetan parte-hartze publiko handiagoa eta zuzenagoa. Nire ustez, helburu horreek guragarriak dira, baina lortzeko gatxak Administrazino Publikoaren gaitasunak eta langileria murriztuta dagozanean, gaur egun jazoten dan lez, eta hori be autortu behar da.

Halanda ze, amaitzeko, atera doguzan bi ondorio horreen esparruan ikusten dogu interesgarria eta garrantzitsua dala EH Bilduren mozinoa, eta, hasieran esan dodan lez, horren alde bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Y pasaremos al turno de réplica. Para ello, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as de nuevo.

Me alegra porque me da la sensación de que en este punto esta Cámara está, digamos, cerca de un acuerdo. A diferencia de unos matices, me parece que estamos cerca de un acuerdo. Compartimos la importancia de las medidas que proponemos y lo que hay que hacer y la necesidad de hacerlo ahora. Y entrando en matices, la señora Díaz Insausti y el señor Trimiño han dicho, y así lo manifiestan también en su enmienda, la necesidad de centrarnos en las pymes, y de alguna manera, también canalizar las subvenciones con respecto a ellas, etc. Eso está bien, y es un paso importante, y si van a hacerlo, enhorabuena, es necesario, y adelante, pero nosotros/as pedimos más que eso.

Como he señalado, lo que pedimos es que se haga una planificación en colaboración con todo el tejido industrial de Bizkaia, en la que se genere con ellos una instrumentación como pauta para que puedan hacer los cambios que tengan que realizar, y que para ello una empresa tenga los recursos económicos necesarios para que no se vea ninguna de ellas en la necesidad de cerrar, porque si esto no se hace de esta manera, seguramente bastantes empresas tendrán que cerrar en Bizkaia.

¿Por qué digo esto? La señora Díaz Insausti también lo ha mencionado, y así se menciona en la página 24 de esta guia metodológica que traigo. Entre los compromisos adquiridos en la Comunidad Autónoma del País Vasco se encuentra el de

“barrikuntzea bultzatzea, karbonoaren mendekoa ez dan ekoizpen eta kontsumo garbiko jarraibideetan oinarritutako euskal ekonomia iraunkorrerantza aurrera egin ahal izateko”. No es poco decir eso. Y hoy por hoy hay varias empresas vizcaínas que no lo pueden cumplir, y eso yo creo que lo sabemos todos/as. Por lo tanto, ¿cómo se va a dar el proceso hacia una economía hipocarbónica en Bizkaia en todo el tejido industrial de Bizkaia?

¿Que cómo se hará esa transición? ¿Y qué pasará con quienes no puedan hacer esa transición? Yo creo que todos y todas sabemos que no todas las empresas podrán hacerlo. Por eso he dicho que la recogida de grandes palabras y objetivos deseables en los planes está bien, pero que a menudo no es realista, y que la planificación debe ser realista. Y para ser realistas habrá que hacerlo necesariamente en colaboración con las empresas, y les he citado como ejemplo la guia elaborada por el Gobierno español. Hay mil ejemplos más, y se puede hacer de mil maneras, pero en todo caso, habría que recoger, y siempre bajo la dirección de la Administración, cuáles son los impactos que se prevén desde la emergencia climática en ese sector, así como el riesgo con respecto a ese sector y qué vulnerabilidad tiene, o qué planificación, o qué transformación se propone para esa empresa ante ese riesgo y para que pueda hacerle frente.

Y a decir verdad, no hay que mirar mucho en la literatura para ver que muchos otros países están ahora en ello, algunos desde 2008, y por ejemplo, Alemania. Alemania hizo eso, empezó a hacerlo en 2008, y ¿qué ha hecho? Lo que ha hecho es un marco de actuación. ¿Y qué hay dentro de ese marco de actuación? Bada, egokitzapenaren arloko ekintza-plan bat inplikautako eragileakaz, que es lo que pedimos ahora. Eta enpresak eta estrategiaren helburua da hainbat ministeriotan garatzen ari diran estrategia sektorialak integretea, ikerketea inplementetea, gizarte-eragileak inpliketea eta klima-aldaketearen arriskuak ebaluetea, ekintza-beharrak eta helburuen definizinoa adierazota.

Austria bardin. Ministroen Kontseiluak 2021ean onartu eban estrategia, eta estrategia horrek 14 sektore aztertzen dauz, eta egokitzapen-neurri zehatzen sorta bat proponiduten dau.

En fin, algo parecido; y hay muchos otros ejemplos, como Finlandia, Francia, Holanda, Irlanda, y no solo a nivel nacional, que están haciendo esto dentro de sus competencias. Eso es lo que pedimos también en la Diputación Foral de Bizkaia, debido a la tradición y tejido industrial que tenemos para Bizkaia. Y no ver eso es tener los ojos cerrados.

Por lo tanto, lo que pedimos es que sea bienvenido en pymes, las acciones que va a llevar a cabo usted son necesarias, pero pedimos más que eso, una planificación liderada por la Administración en colaboración con las empresas y poner los medios necesarios para avanzar. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Arriola Alzola. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ahaleginduko naz barriro ez esaten daborduko aitatu diran hainbat gauza, eta apur bat harira joaten saiatuko naz. Elkarrekin Podemoseko ordezkariak industriari eta trantsizino ekologikoari buruz esan dauenari jagokonez garrantzitsua

erexten deutsagun zeozer zehazten edo azaltzen hasi gura dot, eta argi itxi gura dogu. Argi dago lehen agerraldi honetan be esan doguna. Industriak funtsezko protagonismoa izan behar dauela uste dogu lurraldeko ekonomian, eta lan egin behar dogula industriak gero eta protagonismo handiagoa euki dagian, eta uste dot erakundeak, eta kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundia, euren programen eta estrategien bidez ari dirala norabide horretan lanean edo bide horretan.

Eta trantsizino ekologikoari eta horrek Lurraldeko industria-hazkundeagaz daukan lotureari jagokenez, ez dogu uste negozio-eremua izan behar dauenik, ekologia-gaia izan behar dauenik, errentagarritasun bilatu behar dauenik. Gure ustez, azkenean trantsizino ekologikoa egin beharreko bidea da, eta hori egitea ezinbestekoa da larrialdi klimatiko baten aurrean gagozalako. Halanda ze, ez dago beste aukerarik ez beste alternatibarik trantsizino hori gauzatzea baino, eta, gure ustez, erakundeetatik edo administrazinoetatik jagokun zeregina da, ahal dan neurrian, bide hori egitea izan daitela gure industria-sarea indartzea, ez ahultzea, hau da, ezagutzea edo balio erantsia sortzea, eta hori aukera-, lehiakortasun-, eta barrikuntza-faktore bihurtzea. Horren haritik planteetan dogu guk industriak trantsizino ekologikoaren edo trantsizino energetikoaren esparruan egin behar dauen ibilbidea.

Eta, tira, egia da, zuzenketa zehatzera joanda, mozinora, egia da nire ustez puntu komun asko dagozana. Uste genduan zuzenketea mozinoaren espirituagaz sano lotuta egoala. Gure ustez, enpresa txiki eta ertainetan jarri behar da arretea, eta zuzenketeak halan planteetan dau; jakina, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzea behar da, ez bakarrik ETE horreek egin behar daben planean, diagnostikoan, ezpada jarduketak edo neurriak gauzatzeko orduan be.

Era berean, jakina, ete lehenengo agerraldian esan dogula uste dot, ETE guztiak ez dagozala baldintza bardinetan ulertu behar dogu, ez daukiezala behar berberak, ez dabela bide bera egin beharko, eta ez dabezala bide hori egiteko baliabide berberak. Eta uste dot baegoala zuzenketea aurkeztu dogun eta proposamena egin daben taldeon arteko akordio baterako tartea. Uste dot akordiorako aukera bat galdu dala, baina justuak izan behar gara, eta esan behar dot akordioak bilatzen diranean aurkitzen dirala, eta saihesten diranean gatxa dala akordio horreek aurkitzea. Eta kasu honetan, akordioaren bilaketa proaktiboagoaren faltea barruntau dogu hemendik gura dogun planteamentuaren haritik akordio bategaz atera ahal izateko (erredundantea bada be), gure industria-ehunak trantsizino ekologikoaren bide hori egin dagian. Baina akordio hori ezinezkoa izan dan ezkero, guk ez dogu mozinoa babestuko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días de nuevo.

Se ha repetido muchas veces, y así lo he hecho en mi primer turno, que el foco principal del Departamento de Promoción Económica está en las pymes, por lo que con la enmienda que presentamos queremos reorientar esas nuevas medidas a las pymes.

La señora Basurko ha manifestado en numerosas ocasiones que la misión del Departamento de Promoción Económica es contribuir a la generación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, para lo cual han puesto en marcha una estrategia

integral basada en 5 ejes estratégicos. Uno de esos ejes ha sido, como se ha manifestado, la innovación y la competitividad. Y creemos que con la enmienda que hemos presentado existe la posibilidad de dar un gran paso para mejorar la competitividad de las empresas, mientras se trabaja contra el cambio climático, y se trabaja en torno a la transición energética de las empresas.

Creemos que ha habido oportunidad y tiempo para llegar a un acuerdo, porque creemos sinceramente que las posiciones no están tan alejadas, nuestras puertas siempre han estado abiertas para hablar, para llegar a acuerdos. Y esa actitud que tenemos de acordar, ha quedado clara con las conversaciones que hemos mantenido en los puntos anteriores y con las posiciones que hemos acordado, y nadie se nos ha acercado para hablar de la transición energética de las empresas vizcaínas, y creemos sinceramente que se ha perdido una gran oportunidad para avanzar en este tema.

Proponidu doguzan lan-ildoakaz, gure ustez, aurrerapausu garrantzitsua emon geinke, enpresei klima-aldaketearen eta trantsizino energetikoaren aurkako jarduera garrantzitsuak garatzen laguntzeko; eta, aldi berean, hareen lehiakortasun-egoerea hobetzen dogu, gauza bat ez dago-eta bestearen aurka, lehiakortasuna eta iraunkortasuna alkarregaz doazalako, eta neurri horreek baldintza egokiak sortu leikiezalako ibilbide-orri bat diseinau daiten eta bi helburuetan aurrera egiteko.

Enpresak subjektu aktibo garrantzitsuak dira larrialdi klimatikoaren eta trantsizino energetikoaren helburuei aurre egiteko, eta garrantzitsua da helburu horreek lehiakortasun-helburuakaz lotzeko tresnak izatea. Eta, gure ustez, zalantza barik, abiapuntuko diagnostiko bat eta proiektu jakin batzuk ekarriko dauzan plan bat egitea bide garrantzitsua izan daiteke.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. A continuación... No va a intervenir. Y el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Osokoa hasi orduko, egia esan, deigarri egiten jatan mozino honetan be adostasunik ez egotea. Izan be, ez dakit, itxura baten, aldeak txikiak ziran. Pena bat da alkar ulertzeko tarterik egon ez izana. Egia esan, barikuan nire mozinoan geunkan aurreakordioari ezetz esan jakonean pentsau neban beharbada akordio bat egoala Arriola andrearen mozinoagaz eta horrelan akordio-kupoa beteko zala. Sentiduten dot horrelan esatea, baina batzuetan politikea horren pragmatikoa da. Eta horregaitik harritzen nau gai honetan akordiorik ez egoteak. Emoten dau ezaugarri komuna dala klima-kontuetan akordiorik ez egotea, Osoko Bilkura honetarako behintzat. Espero daigun Osoko Bilkura honetarako baino ez izatea.

Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeroaleak laburbildu dau euren proposamena enpresa txiki eta ertainetara mugatzen dala. Tira, egia da gure lurraldeko industria-sektore gehiena ETEak dirana, eta hareek dira laguntzarik handiena behar dabenak euren negozioen trantsizino energetikoko eta trantsizino ekologikoko zeregin horreetarako, baina kontuan izan behar dogu, baita, Bizkaian isuri gehien daukan enpresea ez dala Fernando tailerra, ezpada Petronor. Bizkaian irabazi gehien daukan enpresea ez da Muskiz trokelgintzea, ezpada Iberdrola. Halanda ze, ondo dago babesa enpresa txiki eta ertainetara mugatzea, baina, tira, trantsizino industriala guztiok egin behar dogu, eta nik uste dot enpresa handiak dirala eraldaketa horri ekiteko erraztasun edo baliabide gehien

daukiezanak. Eta, azken finean, Petronorren kasuan be, danon artean ordaintzen ari gatxakoz bere negozio-eredu barriaren Ikerketa Zentroa, EIC edo Iberdrolaren Smart Grids. Halanda ze, uste dot ezin dala enpresa txiki eta ertainetara bakarrik mugatu.

Trimiño jaunak aitatu dau, egin dauen aitamena izan da trantsizinoak ez dauela izan behar negozio-eremua. Izan be, guztiz bat nator, nire agerraldian esan gura izan dodana da Bizkaiko Foru Aldundiaren politikek horrelan ulertzen dabela hori, gure ustez behintzat, hau da, ez dala Bizkaiko Foru Aldundiarena bakarrik, ez. Uste dot trantsizino ekologikoko politiken diseinua, baita Europakoa be, horrelan ulertzen dala. Berbarako, isurien merkadua diseinau zanean, azkenean negozio-eremu bat gehiago sortzea izan zan, hau da, isuriei prezioa jartea, hori be espekulazino-objektu bihurtu ahal izateko.

Baina, jakina, zuk esaten deustazunean ez dozula horrelan ulertu gura, baina lehiakortasunaren sustapenari buruz berba egiten deustazunean, jakina, hor kontraesana dago, lehiakortasunaren sustapena, hain zuzen be, sano lotuta dagoalako hori industria-sektorearentzako negozio-eremu bat gehiago lez ulertzeagaz, eta, nire ustez, klima-aldaketeak industria-sektorea aurretik eroan ez dagian jo behar dogu, edo horretan jardun, hori da-eta gertatu leitekena, erakunde eta instituzino askoren txostenak ikusita.

Amaitzeko, interesgarria izan leiteken zeozer aitatu gura dot, hau da, Jevonsen paradoxea. Uste dot historialari britainiarra zala, eta ondorioztau eban barrikuntza teknologiko handiagoak, itxura baten kontrakoa emoten dauen arren, ez dauela energia-kontsumo txikiagoa eragiten. Eta berak lurrun-makinearen asmakizunagaz egiten eban adibidea, ikatzaren erabileran eraginkortasun handiagoa sortzen edo lortzen eban asmakizun iraultzailea izan zana, baina hasiera baten uste izan zanaren kontrara, ikatzaren kontsumoak ez eban behera egin, ez. Ikatzaren kontsumoak gora egin eban industria-iraultzearen garaian, lurrun-makinea sortu ondoren. Halanda ze, uste dot hori gure garaian be aplikau geinkela, barrikuntzeak eta lehiakortasunaren hazkundeak bakarrik ez deuskue industria-sektoreko isurien murrizketea ekarriko, ezta hurrik emon be.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. No se ha aprobado la enmienda. Por lo tanto, será la moción la que someteremos a votación. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido en total 47 votos. Han sido 13 votos a favor, han sido 32 votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

Y el punto quinto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre: **Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2022/0002821) **Autor:** Fernández Medrano, Héctor (EB) **Asunto:** Residencias de titularidad foral gestionadas por empresas con ánimo de lucro.	5.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea: **Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2022/0002821SE) **Egilea:** Fernández Medrano, Héctor (EB) **Gaia:** Irabazi-asmoa daben enpresek kudeatutako foru-titulartasuneko egoitzak

Documento Principal: (R.E.11/E/2022/0002821)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (73A)
Expediente: (11/B/20/0004013)

Dokumentu nagusia: (11/E/2022/0002821SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (73A)
Espedientea: (11/B/20/0004013)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Joan dan hilean mozino honen itaunean adierazo genduan lez, arlo publikoaren defensarako gure mantreaz harago, edo Foru Gobernuak enpresa pribaduaren apologiaz harago, edadekoen egoitzen eremuan kasu zehatz bat aurkitzen genduan, eredu zehatz bat, eta batez be horrek kezkatu egiten ginduzan. Dakizuenez, 2000ko hamarkadearen hasieran eregitako 15 egoitza-zentroak aitatzen genduzan, Aldundiaren jaubetzakoak izan arren, irabazi-asmoa daben erakundeek kudeatzen dabezalako.

Orokorrean plazak ituntzea akatsa zala iruditzen bajakun be, putre-funtsek negozioa egin dagien egoitza publikoak lagatzeak baieztu egiten dau publiko izaerearen amaierea gizarte-arretan, hemen, Bizkaian. Bere garaian aitatu genduan lez, persona berberek edo gure aspaldiko ezagunek (hau da, Babesten taldekoek, Vitalia) kudeatzen dabezan 15 egoitza publiko horreetako gehienetan, munean, inbersino-funtsen partaidetzea agertzen zan, esaterako, gure aspaldiko ezaguna, Jersey Ugarteetako funtsa (CVC). Putre-funts horreek, beste batzuetan esan dodan moduan, edadekoentzako egoitza bat kudeatzen dabe zein Indiako Ahmedabad uriko cricket ekiporik maitatuena erosten deutsue, Gujarateko Titanak. Eguneko zentro bat kudeatzen dabe zein antibirus informatikoak erosi. Uste dot batzordean nahikoa hausnartu dodala negozio-mueta horren inguruan.

Zentzunbakokeria da, zentzunbakokeria, gure edadeko mendekoen arreteaz ari bagara. Dirua egiteaz ari bagara, ulertzen dot beste irakurketa bat egin behar dala. Irabazi-asmoaren eta horrelango putre-funtsen inguruko gure erretorikea planteau doguz beste batzuetan, eta ez dodaz barriro esango. Ez dogu irabazi-asmorik ikusi gura gure herriarentzat estrategikoak diran eremuetan, eta nahikoa da horregaz.

Murillo diputaduari egindako itaunetik ez nebazan lortu nik gura nebazan azalpenak, ez guztiak behintzat, edo ez behintzat gura baizen argi. Izan be, benetan ulertu gura neban ze azalpen dagoan egoitzak kudeatzeko eredu zehatz horren atzean. Eta halan-holan ulertu neban, eta ez dot uste ezintasun personalagaitik danik. Azpiegiturak soziedade anonimoa berezko bitartekoaren bidez, beharrizan-une baten kanporatu egin zan 15 egoitzaren eraikuntzea. Hori ulertuta. Esan zan lez, gastu edo aurrekontu-ahalegin hori, une horretan erabili zan eufemismoa, 40 urtez atzeratu edo aldendu zan horri aurre egin ahal izateko. Ados, ondo.

Hondinokarren be ez dogu ulertzen zergaitik bahitzen dan ekipamentu publiko horreen ustiapena edo kudeaketea eta zergaitik emoten jakon irabazi-asmoa dabenei. Egoitzak eregi ebezanak kudeatu egiten dabezan berberak al dira? Ezetz uste dot. Berberak dira? Berrikusi egin beharko dogu, ezta?

Edozelan be, Aldundiak bere garaian 15 egoitza abiadura bizian eta higituezinen burbuila betean eregiteko egin beharko ebazan kontabilidadeko trikimailuetatik harago, ez dogu uste horrek dakarrenik derrigorrean egoitza horreek irabazi-asmoa daben erakundeek kudeatu behar izatea. Hau erabagi politikoa dala uste dogu, eta hori erantzun barik geratu da. Aldundiak egoitza horreen eraikuntzea ordaintzen jarraitzeak ez dau esan gura Gujarateko Titanak cricket-taldearen jaubeek kudeatu behar dabezanik, euren inbersinoak dibersifiketako, jakina.

Gure ustez, 15 egoitza publiko bahituta daukaguz, horrek esan gura dauenagaz lan arloan, termino instituzionaletan eta Bizkaiko gizarte-zerbitzuek zuzenean kontroletako daben gaitasun arloan. Halanda ze, ondorio horreetatik abiauta, itaunetik eratorritako mozino hau planteau genduan. Alde batetik, Aldundiari eskatzea iraupena ikuskatu dagiala, bai Azpiegiturak soziedadean jasotako kudeaketa-aginduena, bai eta ekipamentu horreek eregitako eta kudeatzeko egindako kontratuena be. Gaur eguneko egoera ekonomikoa kontuan hartuta, izan daiteke berrikuspen interesgarriagoa egitea, baita gure lurraldean apliketakoa dan gizarte-zerbitzuen legerian eta araudian dagozan erispideak kontuan hartuta be.

Izan be, hondinokarren be barriro azpimarratuko dot: alderdi batzuetan emon jatan erantzuna kriptikoa zan. Badakit Murillo diputaduak ez dauena ulertu behar goitik behera zelan funtzionetan daben kudeaketa-eredu zehatz horren zirrikituek, baina, tira, behar dan moduan azaldu degiola dakianak. Izan be, orain ikusi neiken gauza bakarra sektore publikotik sektore pribadura gehitutako errenten transferentzia da. Hau da, eraikuntzako baliabide errealen kostuari eta gainerakoei Administrazino Publikoarentzako kostu bat gehitzen jake, egoitza horreek kudeatzen hasi diran enpresa pribaduen irabaziak ordaintzen dauzana; itzaleko bidesari moduko bat, esaten dan lez.

Erabagi politikoa da egoitza horreek irabazi-asmoa daben enpresek ustiatzea. Hori da esan gura dodana, eta berrikusi beharreko erabagia da. Horren haritik, mozinoaren bigarren zatia planteetan genduan. Horren arabera, zera inoan: Aldundiari eskatu degiogula ez dagiala kontratau irabazi-asmoa daben enpresarik inoren laguntzea behar daben edadekoen egoitzak kudeatzeko, honako neurri honeen bidez (zentzun zabalean proponiduten genduan):

-Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 65. artikulua garatuta, hainbat ekintza positibori buruz berba egiten dauena, besteak beste, gizarte-zerbitzuen kudeaketan irabazi-asmoa dauen espazioa mugatzeari buruz.

-Eta, bestetik, GUFEk zuzenean foru-titulartasuneko 15 egoitza horreen kudeaketea bere gain hartzera animetan genduan.

Esparru horreetan irabazi-asmoaren legezko eta bidezko existentzia justifiketako, azken baten, horreek erantzukizun publikoko zerbitzuak dirala esaten jat, eta, azkenean, erantzukizun publikoko zerbitzuak eufemismoa dakar beragaz, funts publikoak sektore pribadura transferiduteko. Guk, halanda be, konfiantza handia daukagu erantzukizun publikoaren sintagma errepetidu horretan, eta, alde horretatik, erantzukizunez jokatu eta gure proposamenaren alde bozkatu daizuela eskatzen deutsuegu. Izan be, gure ustez, gure edadekoek ezin dabe jarraitu eurek baino interes handiagoak daukazan jentearen esku, edo, behintzat, ez deutsegu horrenbeste erraztu behar. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular

Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Itaun honen eztabaidea ikusteko aukerea izan genduan. Fernández Medrano jauna, egia da gaur hemen "ez dot jarraituko askotan batzordean daborduko esan dodanagaz" esan dozuna. Hara, ba bai, jarraitu eizu, baina beharbada ez gagoz gauza batzuk erabagi ziran eremuan. Izan be, logikoa dan moduan, Gizarte Zerbitzuen Legearen esparruan mobidu behar gara, ezta? 2008an onartu zan Gizarte Zerbitzuen Legea Madrazo Lavín jaunak aurkeztu eban eta, aurkezteaz eta onartzeaz gain, poztu egin zan eta, tira, lege horrek printzipio batzuk eta artikulau batzuk ezarten dauz, ezta?

Eta, orduan, bi gauza labur-laburrak. 7. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemea gidatu behar daben printzipioak zeintzuk diran dator eta horren barruan, koordinazinoa eta lankidetzea ezarten dira, eta hori lege bat da. Zera dino: "*Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetza-betebeharraren arabera jardungo dira elkarren artean, bai eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin ere*". Puntua. Jarraitzen dau: "*Elkarlanean arituko dira, orobat, gainerako ekimen pribatuarekin, lege honetako V. tituluan ezarritako eran*". Bosgarren titulura bagoaz, hain zuzen be, hor dago araututa, edo artikuluak ikusten badoguz, 65. artikulua, zure agerraldian be aitatu dozuna, izenburu baten barruan dago, hau da, ekimen pribaduaren esku-hartzea.

Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazinoen jarduteko modua arautu behar dauen Lege bat daukagu, eta, bertan, administrazinoen arteko koordinazinoa eta, jakina, irabazi-asmo bako erakundeakaz eta, modu subsidiarioan, beste batzukaz koordinazioa ezarten da. Baina, era berean, egia da ekimen pribaduaren esku-hartzea zelakoa izango litzateken be arautzen dana. Ekimen pribaduagaz berbatzeko araubidea be jasota dago, eta aurkeztu deuskuzun mozinoan zehazten dozuzan diskriminazino positibo neurri horreek be araututa dagoz.

Eta harago joan barik, zera dino: "*Itunak ezartzerakoan, administrazio publikoek lehentasuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeei*". Administrazino hau edo beste edozein legea urratzen ari dala uste badozu, bi aukera dagoz. Ekimen pribadua alde batera itxi gura badozu, tira, oso ondo, gura dozun planteamentua euki zeinke, eta zelan egingo dan be esan beharko deuskuzu.

Halanda ze, aizu, ba Eusko Legebiltzarrera goaz, Gizarte Zerbitzuen Legea aldatzea planteetan da, eta "hemendik aurrera hori guztia horrelan da" esaten da. Eta 2008an be lege horregaz, finantzaketearen gaiagaz edo Madrazo jaunak ezarritako koordainketeagaz izandako eztabaidara itzuliko gara. Gura badozue, eztabaida horretara itzuliko gara.

Egia esan, ez jat zuzen-zuzena iruditzen hona etortea zehaztasun barik berba egiten, gauzak erdizka esaten, ekimen pribadua alde batera itxi gura dozunean, eta hori ez dago Legean jasota, baina egin, egin leiteke Administrazino Publikoen edo irabazi-asmo bako erakundeen aldetik gaitasun nahikoa egon ezkero. Nahikoa dagoala uste badozu, eta Foru Aldundia ez bada apliketan ari, salatzea baizen erraza da, Legea urratzen egongo liratekelako. Beste zeozer bada, hau da, zuri beste era batera araututa egotea gustauko litxakizula, aizu, Eusko Legebiltzarrean aurkezten zara, berak dauka-eta gauza horreek guztiak arautzeko eskumena, eta, orduan, aizu, eztabaidea han izango dogu. Eta ez

da hemen ez eukiteagaitik. Ni pozarren egongo nintzateke, baina ez da gure eskumena lege hori onartzea, eta, beraz, Ganbera honetan Administrazino Publikoak behartu ahal izatearen inguruan eztabidatzea alperrekoa litzateke, zoritxarrez.

Eta horixe da, Fernández Medrano jauna, nik ikusten dodana proponiduten ari zarien mozino honetan. Hemen zertan uste dot, benetan, zentrau beharko ginatekela? Aizu, bada, hain zuzen be, Legearen betearazpenean, legea aurreikusita dagoan moduan bete daitela. Hau da, irabazi-asmo bako erakundeak badagoz, jakina, diskriminazino positiboko neurriak dagoz zure alde. Eta, jakina, persona guztiei, gure gizarte-zerbitzuak erabilten dabezan bizkaitar guzti-guztiei arreta onena emoten zentrau beharko ginateke. Eta horretarako guk be uste dogu, berbarako, Ikuskapen Zerbitzuak hobetu egin behar dirala, harenbaten, eta horretan bat etorriko gara seguruenik.

Eta eztabaida hori be izan dogu, eta horretan, esaterako, aurrera egiten jarraitu geinkela uste dogu. Nire eretxian, orain dala aste batzuk, batzorde bat izan zala gogoratu gura dot, parkatu eidazue ahotsa, eta zera esan zeunskun: “aizu, begira, nik zehaztasun barik berba egiteari itxiko deutsat eta benetan esango dot zein dan nire proposamena”. Baina, Fernández Medrano jauna, ezin da egin horrelan apur bat eta gero atzerantza joan. Aizu, ez, egin gura badozue, egizue. Eta termino zehatzak zeintzuk diran esango deuskuzue. Behar dan lekuan proponidu eizue, hau da, Eusko Legebiltzarrean. Eta, gainera, finantzaketearen inguruan be berba egingo dogu, eta Eusko Jaurlaritzeak Aldundi hau eta gainerako Aldundiak zelan hornidu beharko leukezan aurrekontuakaz, horren ardurea hartu ahal izan daigun. Bestelan, bigarren zatia jatorku, Madrazo jaunagaz be ikusi genduana, hau da, koordainketearena, eta horretaz ez dinozue ezer.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Honako gogoeta honetatik abiauko gara: egoera demografikoak eta gizarte-aldaketak arin jazo izanaren eraginez Administrazino Publikoek Gizarte Zerbitzuen Sistemea eregi dabe apurka-apurka. Sistema hori, Autonomia Personala Sustatzeko eta Mendetasun-egoeran dagozan Personak Artatzeko 2006ko Legetik hona (zalantza barik, funtsezko mugarria izan zan gizarte-zerbitzuen garapenerako), gauza asko jazo dira eta gauza asko egin dira. Eta 2008an Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea onartu zanetik, adostasun zabalagaz, bide batez, erantzukizun publikotik, apurka-apurka, persona guztiok daukagun eskubideari erantzuteko laguntzak eta baliabideak antolatu dira. Bidezkoa dala erexten deutsagu, era berean, gure lurraldean ahalegin handiagaz eregitako sistema bat daukagula autortzeari, arrakastak eta akatsak dituana, baina konponbideak emon dauzana. Batzar Nagusi honeek sistema hori hobetzen joan dira, eta urteen joan-etorrian talde guztiek babestu dabe.

Eta gizarte-babesa operatibo eta eraginkor egiteko testuinguru horretan, Bizkaian formula bat ezarri da egoitza-plaza bat behar eben, behar daben eta beharko daben personei behar besteko erantzuna emoteko. Formula horrek Azpiegiturak alkartearen lankidetzea aurreikusten eban. Prozesu hori daborduko azaldu da, eta talde guztiok ezagutzen dogu. Beraz, ez dago barriro esan beharrik.

Eta horrexek dakarsku gaurkoan hona. Elkarrekin Bizkaiaren mozino bat daukagu, enpresa pribaduek kudeatzen dabezan foru-egoitzei buruzko hainbat

proposamenegaz. Zuon errazoiketan, edadekoen egoitzak kudeatzeko hitzarmenak berrikusteko beharraz berba egiten deuskuzue, horreek ezabatzeko, eta zerbitzuen kalidadearen bermea aitatzen dozue. Ez dogu mozinoa babestuko ez gatozalako bat errazoiketeagaz, eta, gainera, guri ez jagokun arau-aldaketea proponiduten deuskulako, Eusko Legebiltzarrai jagoko-eta. Gure ustez, Legebiltzarrean planteau beharko litzateke hori, Gizarte Itunaren araubidea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako hitzarmenak arautuko dauzan Dekretua be izapidetzen ari dira-eta, edo, hala bajagoko, Legeak jasoten dauen lankidetza publiko-pribadua ezabatu gura bada, mozinoan aitatzen dozun 12/2008 Legearen berrikuspena planteau beharko litzateke.

Horrezaz gainera, Bizkaiko egoitza-zentro guztiak kontrol publikoaren mende dagozala uste dogu, eta ezin da bestelan izan, hareen kudeaketa-eredua edozein izanda be; eta kontratuak fiskalizauta dagoz, kontuak ikuskatuta, eta talde guztiek daukagu kontratu horreetarako sarbidea; beraz, horregaz kontrol publikoa bermatuta dago. Baina, batez be, ez goaz mozinoa babesten legegintzaldi osoan aldaketa-prozesu baten lanean jardun dogulako, ez ordezkapen-prozesu baten. Lortutakotik abiauta egon gara lanean, egoitzetako arretearen kalidadea eta egoiliarren eskubideen babesa hobetzeko neurrietan. Zentroen antolaketa hobea, arreta hobea, kontrol handiagoa eta profesionalen prestakuntza hobea bultzatzeko lanean ibili gara. Azken baten, zerbitzu publikoak indartzeko eta eskariari erantzun ahal izateko neurriak bultzatu doguz, eta edadekoen arretea eta bizi-kalidadea bermatzeko, baita egoitzetan be.

Ardura eta ataza bera daukaguz, eta talde sozialisteak beti defendidu dau zainketak antolatzeko beharra, jagonda egoteko eskubidea eskubide unibersal lez bermatuko dauen antolaketea, eta hori da gure helburua. Eta, horregaitik, adostasunean oinarritutako lan bat egiten dihardugu, ia beti, arlo publikotik persona bakotxari arreta osoa bermatuko deutsien zainketen aldeko apustua egiten dauena, bakotxaren beharrizanak eta itxaropenak kontuan hartuta, persona bakotxaren aukerea gorabehera.

Eta nire taldean gurago dogu daukaguzan baliabideak hobetzeko bidetik jarraitu, gainerako erakundeetan egiten dogun lan-ildoagaz koherentziagaitik, eta sinistu egiten dogulako zerbitzu publikoak titulartasun publikokoak dirala eta kontrol publikoaren pean dagozala. Eta horrelan izan behar dauela uste dogu, eta zerbitzu optimoak eta efizienteak bermatu gura doguz, behar dabezan beste baliabide eta tresnagaz, eredu desbardinei eta bakotxaren egokitasunari buruz eztabaidatzen hasi barik, ikuspegi alderdikoi barik.

Beste une baten gagozala uste dogu, eta baita beste kako batzuetan be: gizarte-zerbitzuen modernizazinoa, zaintza- eta laguntza-politikak indartzea, barrikuntzea, zainketen desfamiliarizazinoa, ikuspegi komunitarioa, etxeko arretea, besteak beste, sistemea eraldatzen lagunduko deuskun ezagutzea sortzeko unea.

Eta nire taldeak honetan jarraituko dau, honetan zentrauta jarraituko dogu, lan-ildo honetan. Halanda ze, ez dogu mozino hau babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Campo Prieto. A continuación, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días a todos/as.

Hoy debatimos una Proposición No de Norma derivada de la

interpelación presentada por Elkarrekin Bizkaia en el último Pleno de Control. Ese día el portavoz Héctor Fernández preguntó al diputado de Acción Social sobre las encomiendas de gestión que se realizan a través de la sociedad Azpiegiturak, y en esa misma sesión yo también le pregunté al diputado sobre la gestión de las residencias para personas mayores. En concreto, sobre el modelo de gestión de las residencias dependientes del IFAS.

Desde el principio de la legislatura manifestamos nuestra preocupación por la situación del IFAS y una de las principales razones ha sido el proceso de privatización progresiva de las plazas residenciales para personas mayores. Solo teníamos 3 residencias para personas mayores con gestión pública, y con la transformación originada en Gallarta, solo nos quedan 2 en Bizkaia: Elorrio y Leioa.

Ese día el diputado no nos dijo el modelo de gestión por el que apuesta su Departamento para las dos nuevas residencias que han anunciado que van a construir. Hablamos mucho del proceso que se dio desde el año 2021, pero no nos indicó cuál es la apuesta actual, la apuesta que tiene esta Diputación con respecto al modelo. Nos dijo que en estos momentos se está trabajando en el proyecto de construcción y que decidirán, o ustedes decidirán más adelante quién y cómo se gestionarán estas dos nuevas residencias.

La respuesta que nos dio Sergio Murillo a otra de nuestras preguntas nos hace pensar que la Diputación hace una apuesta clara por el modelo de gestión privada. Nos dijo que la función del IFAS es tener una función complementaria a la red, es decir, lo que no se puede concertar se hace desde los centros de gestión directa. Es decir, lo que no es rentable para el mercado privado, lo asumirá, eso sí, el ente público.

Si estamos preocupados/as por la situación del IFAS y por el modelo de gestión privada que ha hecho la Diputación, nuestra preocupación por la situación de las 15 residencias de la asociación Azpiegiturak no es menor. Y es que la gestión es la misma, privada. Hoy hablamos de las encomiendas de gestión que se hacen a través de la sociedad Azpiegiturak, un total de 1.865 plazas de las 15 residencias puestas en marcha desde 2021 que gestionan empresas con ánimo de lucro.

En el Pleno de Control, el diputado fundamentó el modelo de gestión de estas 15 residencias en la necesidad urgente de plazas residenciales. Y es que ese año teníamos la mitad de plazas que hoy en día y es verdad que teníamos mucha necesidad. Y el diputado nos dijo que aquella carga era puntual y para un período de tiempo determinado, pero hoy no estamos en 2021; ahora estamos en el año 2023. Por tanto, la necesidad de plazas residenciales para personas mayores no es tan grande. La situación es diferente y creemos que ha pasado un tiempo razonable para hacer una reflexión en profundidad sobre la situación de esas 15 residencias.

Y la propuesta de Elkarrekin Bizkaia nos parece razonable y razonada, y no plantea ningún cambio normativo. Tal vez haya habido un malentendido, pero lo que están planteando es, en primer lugar, en el primer punto, supervisar la duración de los medios de gestión, no el análisis económico o el informe económico que se realizan anualmente, sino hacer una labor de inspección de la duración de esa encomienda de gestión, que es lo que plantean. Y nos parece que esto es fundamental por lo que se ha comentado antes, porque nos parece que los argumentos que nos dio el diputado para 2021 quizás no sean válidos para el año 2023.

Y, en segundo lugar, lo que nos propone Elkarrekin Bizkaia es pedir a la Diputación que no priorice (“priorizar”, no “rechazar un modelo de gestión”), que no priorice la contratación con empresas con ánimo de lucro, y la Ley que actualmente tenemos, es decir, la Ley de Servicios Sociales de 2008 nos garantiza ese camino, nos hace

viable ese camino. Y fue citado por el diputado Sergio Murillo en el pasado Pleno, y este Gobierno Foral conoce bien que esta Ley de Servicios Sociales recoge, como ha citado la portavoz del Partido Popular, que en esta Ley se recogen medidas de discriminación positiva. Y eso es lo que se está planteando o proponiendo hoy, no excluir el modelo privado, sino priorizar la celebración de estos contratos con entidades sin ánimo de lucro. Y continuaré en el segundo turno. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lamborena Barreras, tiene usted la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztutako mozino bat eztabaidatzen ari gara gaur. Gure agerraldia Azpiegiturak alkartearen jatorriari eta xedeari buruzko aitamen labur batekaz hastea gurako geunke. Soziedade anonimo berezko bitartekoa da, 2010ean eratu zana, lau soziedade publikok bat egin ebenean: Azpiegiturak, Bideak, Bizkailur eta Kirolgintzan. Eta haren jardun-ildo nagusietako bat edadekoentzako edo hainbat desgaitasun edo premina dabezan persona-taldeentzako gizarte-ekipamentuak eregitea eta ustiatzea da.

Zemendiko Kontroleko Osokoan, Murillo jaunak, Gizarte Ekintzako diputaduak, ohar interesgarri batzuk itxi euskuzan Azpiegiturak alkarteak Bizkaiko zerbitzuak emoteko sarean daukan garrantzia ulertzeko. Murillo jaunak esan euskun Azpiegiturak soziedade publikoak gaur egun kudeatzen dauzan azpiegitura sozialen garapena Eusko Legebiltzarraren 5/1996 Legearen plangintzan oinarrituta dagoala. Lege horrek erantzukizun publikoko zerbitzuak emoteko eskumen-esparrua eta ekimen pribaduaren lankidetzarako oinarriak ezarri eta osotu ebazan. Abiapuntu horri esker, azpiegitura-plan bat izan genduan 2000 urtetik aurrera, hau da, Euskadiko egungo Gizarte Zerbitzuen Legea onartu baino urte batzuk lehenago.

Batez be, azpimarratu egin eban Azpiegiturak soziedadea eta kudeatzen dauzan azpiegituren sustapena funtsezko elementuak dirala ulertzeko zergaitik daukazan Bizkaiak gaur egun egoitza-plaza nahikoak mendetasun-egoeran dagozan personen neurriei erantzuteko, bai tamainari jagokonez, bai lurralde-orekeari jagokonez. Azpiegiturak alkartea funtsezkoa izan zan Bizkaiko sareak 2001ean 5.349 plaza baimendu izatetik 2011n (10 urte geroago baino ez) 10.154 izatera heltzeko, eta hain denpora-tarte laburrean sarean % 36ko hazkundea aktibau eta ekarri eban. Garai haretan, azpiegitura-plan baten bidez plaza publikoak sortzea ebatzi zan, enpresa publiko bati enkarguak eginda, eta horrek ikusi ahal izan dogun emoierea euki dau: hasieran, 2001ean biztanleria apurka-apurka zahartzen joian eta Bizkaian edadekoentzako egoitza-plaza gitxiegi egoan, eta 2011tik hona sarearen preminei erantzuteko beste plaza daukaguz.

Azpiegiturak alkarteak aplikautako formuleari esker, 15 egoitza sortzeko ahalegin handi hori egin ahal izan zan (Bizkaiak garai haretan behar eban hazkundearen % 36) finantza-ahalegina denporaren joan-etorrian banatuta, eta beti be Sektore Publikoko Kontratuen Legearen parametroen barruan. Kontratuen epeak lotuta dagoz gizarte-azpiegitura horreek sustatzeko behar dan finantza-ahaleginaren banaketa horregaz.

Testuingurua marraztu ondoren, mozinoaren maminagaz helduko deutsagu gaiari. Zure proposamenaren lehenengo puntutik hasita, (auditoretzearen

ingurukoa), Euzko Abertzaleak taldearen eretxian, Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzu guztietan behar dan beste kontrol egiten da, salbuespen barik, Azpiegiturak alkartearenak be bai, jakina. Titulartasun publiko zein pribaduko zerbitzuak izan, guztiak dagoz baimenari, inskripzinoari eta ikuskapen publikoari lotuta. Horrek berme publikoa eskatzen dau, funtzionario publikoakaz eta ikuskapenerako gero eta profesional gehiagogaz. Barriro dinogu, ikuskapen publiko handiagoa, ikuskapen publiko gehiago eta, horren ondorioz, berme publiko gehiago.

Horri erantsita, hau da, baimen, inskripzino eta ikuskapen publikoari, kontratuak Fiskalizazino Zerbitzuak fiskalizau ditu. Beste berme bat. Baina, arabere gehiago, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Aldundiaren kontuei buruzko urteko txostenak egiten dauz, eta hor sartzen dira Azpiegiturak alkartearen aginduak eta soziedade horren kontratuak be. Erakundeek be auditoriak bialtzen deutsiez urtero Azpiegiturak alkarteari, kontratazino-agirietan esaten dan moduan.

Azkenik, baina ez horregaitik garrantzi gitxiago daukana: kontratu horreek Batzar Nagusi honeetako ahaldunok gainbegiratu egin geinkez, eta hori berme bat gehiago da, gure eretxi apalean.

Orain, mozinoaren bigarren puntuari erreparauta, eskatzen dan aukerea daborduko Legean jasota dagoala esan behar dogu, eta proponiduten dan arau-garapena ez jagokela Batzar Nagusi honeei. Gizarte Zerbitzuen Legearen 65. artikulua aitatu dozue. Aitamen horrek, beste alde batetik, poztu egiten gaitu, eta, aldi berean, plazak ituntzeko aukerea euren gain hartzen dabela pentsau eragiten deusku; izan be, 65. artikulu hori Gizarte Zerbitzuen Legearen 1. kapituluko bosgarren tituluan dago, ekimen pribaduak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak emotearen inguruko esku-hartzeari buruzkoan. Aitatzen ari garan Legeak jasoten dauenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemea erantzukizun publikoaren arretarako sare publiko artikulaua da (bosgarren artikulua), eta titulartasun publikoko eta titulartasun pribadu itunduko prestazino, zerbitzu eta ekipamentuek osotuko dabe.

Lege horrek, gainera, 60. artikuluan jasoten dau euskal administrazino publikoek zuzeneko kudeaketearen bidez antolatu ahal izango dabezala zerbitzuak, lege horretan aurreikusten dan itun-araubidearen bidez, zeharkako kudeaketearen bidez administrazino publikoen kontratazio-araudiaren esparruan, eta irabazi-asmo bako erakundeakaz egindako hitzarmenen bidez.

Halanda ze, esan geinke titulartasun publikoko eta titulartasun pribadu itunduko ekipamentuak aurreikusten dauzan lege bat daukagula, eta sarearen erantzukizun publikoa autortzen dauela. Bide batez, Legebiltzarraren adostasun zabala lortu eban Legea da. Horreek dira, eta ez beste batzuk, baimendutako formulak, jokoaren arauak marketan dauzanak, eta EAJn horreei egingo deutsegu kasu.

Bi errazoi horreek sendoak dirala uste dogu eta aztertzen ari garan itaunetik eratorritako mozinoaren onarpenaren aurkako botoa adierazotera garoez. Gure ustez, kontrol publiko nahikoa dago, eta eskatzen dan aukerea Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean jasota dago; gainera, proponiduten dauen arau-garapena ez jagoke Batzar Nagusi honeei.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lamborena Barreras. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la

palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Bizkaiko Alderdi Popularrari erantzungo deutsat, bera izan da-eta batzar-talde bakarra gaur hona ekarri dodan proposamenaren mamina eztabaidatu dauena. Halanda ze, alde batetik, eskertzen deutsut, eta bestetik, ez nekian zu cricketaren eta Indiako ekipoen zalea zinanik. Baina azalpen bat zor deutsut. Halanda ze, alde batetik, esan deustazu publikoaren defensea argudiatu edo argumentau daidala, hemen gagozanetik defendiduten ari garan erretorika hau.

Nire ustez, ez naz persona egokia gizarte-arretan eremu publikoa pribaduaren aurrean defendiduteko, eta gizarte zibilera jo beharko litzateke, eta bertan bilatu beharko litzateke erantzuna. Askotan berba egin dogu egoitzetako beharginen senideakaz eta sindikatuakaz, eta errepetiduten dan argudioa, besteak beste, zera da: egoitza pribadu bateko eta GUFEko behargin baten soldatan 1.000 euroarteko aldea egon leitekela. Horrek, gure ustez, edozeinek egiaztau leiken zerbitzuaren okertze nabarmena dakar, eta gizarte zibilak eskaintzen deuskun ildo horretatik jarraitu geinke, publikoa gurago dogula errazoitzeko.

Baina uste dot ezin dodala gehiago garatu, beste gauza batzuk garatu behar dodazalako. Gure ustez, 15 egoitzetako kasu zehatz honetan ez da behar dan moduan apliketan ari nik aitatu dodan 65. artikuluaren zatia. Filosofiako irakaslea naz, batzarkide izatea egokitu jat. Ni ez naz auzilaria, eta nire alderdiak be ez dauka baliabide nahikorik hori eztabaidatzen hasteko. Halanda ze, nire ustez, kontratazino-mueta horreetan, 2008. urtea baino lehenago egin arren, beste erispide batzuei emon beharko litxakie lehentasuna kudeaketa-agindu hori emon ahal izateko, egoitza horreen kudeaketea emoteko.

Edozelan be, esan jat, zera... Hainbat taldek be esan deuste, gizarte-arretearen eremuan ekimen pribadua dagoala onartzen dot, eta hori agiriko gauza da, eta legezkoa izateaz gain, praktikoa eta eraginkorra da. Baina hemen aitatzen ari nazana oso kasu zehatza da, eta ez dauz zalantzan jarten gizarte-arretearen legezkotasun-esparru orokorrak. Ni eraikin publikoetan dagozan 1.900 plaza horreek dodaz berbabide, ekimen pribaduak baino irabazi-asmoko ekimen pribaduak kudeatzen dauz-eta.

Honako hau esanda, autodeterminazino eskubideagaz adibide bat jartera nindoan: dibortzioagaz egingo dot. Dibortzietako legezko aukereak ez dau esan gura, derrigorrez bikotekideak itxi behar doguzanik. Izan be, ekimen pribadua eta publikoa batera egoteko legezko aukereak ez dau esan gura dana sakrifikau behar danik batzuek horregaz negozioa egiten ixteagaitik. Hori sano argi ikusten dogu, eta beti gororarazoten jat. Jazoten dana jazoten dala, ekimen pribaduak iraungo dau, jakina. Kontua da ea ekimen publikoak erritmo horretan jarraituko ete dauen. Izan be, gure ekipamentuetan gizarte-arretea baino euren inbersinoak errentagarri bihurtzea gurago dauen jentea jarten badogu, ba txarto goaz.

Edozelan be, zer da nik gura dodana? Nik gura dodanak ez dauka horrenbesteko garrantzirik. Esan gura dot, galdetzen badeustazu zelan ikusten dodan nik gizarte-arretea lako esparru estrategiko bat, jakina, kanpoan itxiko neuke ekimen pribadua. Baina, tira, daukagun lege-esparruagaz eta batzarkide izateko daukaguzan aukerakaz moldatu behar gara, eta itaunetik eratorritako mozinoak ekarri behar doguz hona.

Hona dakardana, argi eta garbi, erdikinak dira aurreko egunean Duke ahaldunari esan neutsanaren aldean. Autortu eta eskertzen deutsadaz bere agerraldia eta

aldeko botoa. Bat egiten dogu diagnostikoagaz. Baina zergaitik dira erdikinak? Ez nik halan erabagi dodalako, ezpada egoereak ez dauelako eskatzen 15 egoitza nazionalizetea. Izan be, egoitza horreek publikoak dira daborduko. Nik daborduko publikoa dan ekipamentu hori zelan kudeatzen ari dan berrikustea proponiduten dot. Ez naz Bizkaia sobietartzeko eskatzen ari, ulertzen deustazu? Hau da, proposamena erdizkakoa da, proposamen moderaua dalako, egoereak ahalbidetzen dauen moduan, eta ez da sakrifizino handirik egin behar, ezta iraultza handirik be.

Jakina, ezin dodaz aitatu planteau jatazan gauza guztiak. Uste dogu gure mozinoa erraza dala. Hau da, erraza da eta enpresa eregitzaile horreekaz daukagun hipotekea gainbegiratzea dau berbabide, Murillok inoan moduan; izan be, emoten dau modu batera edo bestera 2000ko hamarkadearen hasieran eregi ebezan egoitzak kudeatzen ari dirala.

Bestalde, kontuan izan behar da gizarte-laguntzan irabazi-asmorik ez daben ekimenak bultzatzeko erispide hori, eta, bestalde, gogorarazo behar da aukerea dagoala daborduko Bizkaikoa dana baliabide propioakaz kudeatzeko, esaterako 15 egoitza horreek, 1.900 plaza inguru daukiezanak.

Edozelan be, badira 2040ra arteko iraupena daben aginduak be, Murillo diputaduak gogorarazo eustan lez. 2040ra arte manteniduten badira, ikusiko dogu, barriro aztertu behar diranean, zer zan hemen lehentasuna, negozioa egiteko borondatea ala Bizkaiko mendeko personei kalidadezko zerbitzua emoteko borondatea. Ikusiko dogu kudeaketa-eredu horretan zikotzen interesak edo premina daben personen interesak nagusitu ete diran. Horren haritik, nire mozinoaren aldeko botoa eskatzen jarraitzen dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Ni neu Zuzenbidean lizentziaduna naz; idearik be ez daukat cricketaz eta saskibaloia maite dot. Ez dakit horrek ezer eransten dauen, baina, tira, esatearren dinot... Eta uste dot badakidala irakurten. Hemen ez da esaten irabazi-asmo bako erakundeei lehentasuna emon behar jakenik, lehentasuna emon behar jake-eta, Legean ezarrita datorrelako. Horregaitik esan deutsut, auziren bat izan ezkero, salatu egin behar dozula. Hain zuzen be, baldintza-agiriren bat dagoala badakizu, Aldundia egiten ari dan aginduren bat, eta Legea beteten ez dauena, logikoena salaketea jartea da.

Eta, jakina, erdizka..., baina erdikinak..., ondo, baina ezin da erdi-haurdun egon, jakina. Halanda ze, hemen ez da hori esaten, hemen alde batera ixtea dino. Ondo. Orduan, lehen Gizarte Zerbitzuen Legearen artikuluak berbaz berba irakurri dodaz, zertaz ari garan jakiteko; izan be, hor lehenesteko esango baleu..., aizu, bada, lehentasuna emon behar jako, Legean horrelan ezarrita dagoalako. Baina, alde batera ixteko dino.

Eta egia da Eusko Legebiltzarrak bere garaian administrazino publikoak mobidu behar diran eremua markau ebana, eta nire ustez garrantzitsuena da erantzukizun publikoko sare bat dagoala, eta horri lotu behar gatxakoz, titulartasun publikoko zentroak eta itunpeko zentroak egon leitekezalako. Ez dozuela itunpeko zentrorik gura? Aldatu eizue Legea, eta esaiguzue zelan egiten dan. Izan be, ez dozue itunpeko zentrorik gura, hezkuntzan be ez dozue gura, eta, funtsean, askotan, zoritxarrez,

ez dozue gura herritarrok aukeratzeko askatasuna izatea. Baina, jakina, hori da orain mozino baten hemen izango ez dogun beste eztabaida bat, ezta?

Eta nik uste dot horretan zentrau behar garala, eta hori da batzarkide lez daukagun eginkizuna: bizkaitarren bizi-kalidadea hobetuko daben Arau Proposamenak martxan jartean zentrau behar gara, hoba ez, eta gizarte-zerbitzuen gaian, daukaguzan eskumenetan. Hain zuzen be, erdira ekarri behar doguna da Lege bat daukagula, esparru bat dana, eta askotan gitxieneko bat ezarten dauen Zorro bat daukagula. Eta, nire eretxian, askotan zu eta biok bat etorri geintekez, Fernández Medrano jauna, Zorro batek ezarri ahal deuskuzan gitxienekoetatik harago joan gaitezala eskatzean Foru Aldundiari, ikuskapen handiagoa egon daitela eskatzean, gure Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzu guztietan emoten dan arretea ahalik eta onena izan daitela eskatzean. Eta uste dot, eta horretan bat nator, ados gagozan zatiagaz geratuko nazala, hau da, hondinokarren asko dagoala hobetzeko, eta Foru Gobernuak esan arren dana eginda dagoala eta kontrol nahikoa dagoala, ikuskapen nahikoa, eta auditoria nahikoa, ba gu seguru gagoz hondinokarren bide luzea dagoana egiteko hor.

Eta, hain zuzen be, sare bati buruz ari garan ezkero, hau da, gizarte-zerbitzuei buruz, erantzukizun publikokoa dana, eta gu guztion erantzukizuna dana, une honetan oposizinoan gagozan baina Gobernu izateko bokazinoa daukagun taldeon erantzukizuna be izango da une honetan gobernu-lan horreetan dagozanei hobeto egin dagiela eskatzea; izan be, esan dodan moduan, hondino be hobetzeko tarte handia dago. Hobetzeko tarte handia dago gure edadekoentzako arretan. Egoitzek, egoitzetako beharginek, egoiliarren senitartekoek eta egoiliarrek eurek helarazoten deuskuezan eskaera guztiei erantzun degieguzan hobetzeko tarte handia, hain zuzen be.

Eta nire eretxiz, horretan ipini behar dogu arretea, jokatu behar dogun arau-eremua kontuan hartuta, hau da, Legean dagoana. Eta bestelan, eta beste arau-eremu bat gura badogu, (eta horrek askoz gauza gehiago dakarz), gura dozuen aldaketea proponidu beharko dozue Legebiltzarreko organoan, hori da-eta organo egokia. Baina, barriro dinot, itunen kontu hori ezarrita dago, eta itunei esker zerbitzu asko izan geinkez, eta herritarrok aukeratzeko eskubidea euki geinke, aukeratzeko askatasuna, eta hori, nire taldearen ustez, funtsezkoa da.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Egun on.

Labur-labur. Gure jarrerea argitzearren baino ez. Argitu ez, gure jarrerea sendotzearren, mozino honek guk daukagun helburua arean desbideratu egiten dauela uste dogu-eta. Izan be, gure ustez, daborduko hasita dagoan eraldaketearen alde lanean jarraitu behar dogu, eta gu eskubideak bermatzen eta sendotzen dabezan politikak bultzatzearen alde gagoz, erantzukizunez eta koherentziaz, adierazpen mailan eta asmoen adierazpenetan geratu barik.

Alderdi Sozialistearen eretxiz, eztabaideak zerbitzu publikoak babesteko, personen eskubideak babesteko eta baliabide guztiak jarteko balio behar dau, zerbitzurik onenak eskaintzeko. Bide horretatik jarraituko dogu, baita koherentziagaitik be, horixe egiten dogu-eta gagozan erakunde guztietan, Bizkaian, Euskadin eta Espainian be bai. Horregaitik, neurri batzuk babesten doguz, eta neurri horreek, gainera, mozino hau proponidu dabenakaz bat datoz, esaterako, autonomia personalaren sistemea bultzatzeko

talka-plana, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartuta dagoana, edo zentroen eta zerbitzuen egiaztapenari eta kalidadeari buruzko akordioa, gauza bakotxaren eskumenak non dagozan alde batera itxita. Era berean, zainketen gizarte-ekonomiari buruzko PERTEa, edo Gizarte Zerbitzuei buruzko lege-aurreproiektua, atzo bertan onartu zana. Gure ustez, ildo hori jarraitu behar dogu lanean, aldaketa hori bultzatzen hasi gara, eta guk estrategia horren alde egiten jarraitzen dogu. Bizkaian be aldaketa horreek egiten ari gara, eta uste dogu jarraituko dogun bidea dala.

Gure ustez, gaurko mozino honek proponiduten dauena ez doa bide horretatik; beste alde batetik doala uste dogu. Halanda ze, guk zerbitzu publiko horreen alde lan egiten jarraituko dogu, horreek bermatzeko daukaguzan bitartekoak eta baliabideak hobetuta. Gure bidea izan da beti, eta, erantzukizunetik abiauta, konponbide errealistak eta bideragarriak ekarriko dabezan politikak egiten saiatuko gara. Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Campo Prieto. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Bueno, tal y como he manifestado en mi primera intervención, desde el año 2021 han cambiado muchas cosas. Han entrado nuevas empresas, se han introducido fondos de inversión..., y me gustaría preguntarles, porque se ha mencionado un concepto en numerosas ocasiones: todos/as hemos mencionado la responsabilidad pública. ¿Qué es la responsabilidad pública? Pues, a nuestro entender, la responsabilidad pública es revisar la duración de esos contratos que se hicieron a comienzos del año 2021 o 2020, y eso es lo que hoy se está pidiendo. No las auditorías que se hacen todos los años, sino que se revise si las condiciones de los contratos que se hicieron en aquel momento se mantienen o no. ¿Para qué? Para sacar una conclusión. ¿Las condiciones que en aquel entonces eran justas lo son también hoy en día? ¿Debemos mantener hoy en día la misma duración? Sí, no; eso es lo que entiendo que está planteando el compañero de Elkarrekin Bizkaia.

Y en el segundo punto lo que se dice es que se prioricen las entidades sin ánimo de lucro. ¿Y qué se ha priorizado hasta la fecha? ¿Qué se ha priorizado durante esta última década?

Zer lehenetsi da edadekoentzako egoitza-sarean? Kudeaketa publikoaren eredua? Irabazi-asmoa daben erakundeen kudeaketa pribaduaren eredua? Eta azpimarratuko dot kontzeptu hori, “irabazi-asmoa”. Izan be, argi dago irabazi-asmoa daben erakundeakaz kudeaketa pribaduaren eredua aukeratu eta lehenetsi dana. Izan be, gaur egun, irabazi-asmoa daben erakundeakaz hitzarmenak egiteko eredu bati buruz berba egiten ari gara, beste hitzarmen-eredu bat dagoalako, eta Alderdi Popularreko bozeroaleak aitatu dau, adibide bat ipini dau. Izan be, Hezkuntzan, eta erexten deutsat ez jakola inori bururatzen hezkuntza-sisteman irabazi-asmoa daben erakundeakaz hitzarmenik egitea. Eta horretaz ari gara, ez hitzarmen-ereduaz berba egiteaz, ezpada sektore estrategiko baten, ondasun orokorra dan sektore baten irabazi-asmorik ez egoteaz.

Y les quiero recordar... Todos los partidos tenemos nuestra representación en el Parlamento, y se ha mencionado en numerosas ocasiones que tal vez debamos llevar al Parlamento, al Parlamento Vasco la modificación de la Ley. Les quiero recordar que, desde que se aprobó la Ley el año 2008, se inició el proceso en el año 2010.

2008an Gizarte Zerbitzuen Legea onartu zanetik gauza asko aldatu

dirala esan dot, eta 2010ean hasi zan Gizarte Itunaren araubidea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako hitzarmenak arautzen dauzan Dekretu hori egiteko prozedurea. 2010ean hasi zan, eta 2010etik hona gauza asko gertatu dira, arau aldaketa asko egon dira, eta 2020. urtean Eusko Legebiltzarrean eztabaida hori barriro hasi zan, eta hemengo indar politiko askok hartu eben parte eztabaida horretan. Eta ia garatuta egoan dekretu horri buruzko txosten bat egin zan, hemen dagozan persona batzuek jakingo daben moduan.

Eta, zoritxarrez, dekretu hori ez da onartu. Eta zoritxarrez dinot, Gizarte Ekintzako diputaduak jakingo dauen moduan, dekretu horren zirriborro horretan jasoten dalako erakunde pribaduek Administrazinoagaz eta Administrazino Publikoakaz lankidetzan jardun behar dabela gizarte-zerbitzuak emoteko, kudeaketa modu solidarioan egin ezkero. Eta zer da modu solidarioan? Irabazi-asmo bakoa. Eta, zoritxarrez, Dekretu hori ez da onartu, lehen esan dodan moduan, baina adostasun zabala egoan hori horrelan izan behar zala esatean, nahi-ta gaur Alderdi Sozialistea nahiko gauza korapilatsuak esaten ari dan; bere garaian, Dekretu horren zirriborroa aurkeztu zanean, gaur hemen be ordezkatuta dagozan indar politiko gehienak ados egozan irabazi-asmoa sobran egoala esaterakoan gizarte-zerbitzuak lako sektore estrategiko baten, zaintza-politikak, esaterako. Eta hori helduko da, batzuen gustukoa ez bada be, hemen, Bizkaian, nagusi dan eredua dalako. Eta Dekretu hori onartu egingo da, eta gure egoitza-sarean be ezarri beharko dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Y para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lamborena Barreras, tiene usted la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Tira, Fernández andrea aurreratu egin jat estimazino bat egiteko orduan. Bai, Duque andreari esan behar deutsat zeozelako desbardintasuna izan dogula mozinoa irakurterakoan, edo beste era batera irakurri dogula. Izan be, Fernández andreak ondo esan dauen moduan, kontratazinoa alde batera ixteko dino berbaz berba mozinoak. Pentsetan dogu eta uste dogu berretsiko deuskuzula, gainera, alde batera ixteak aldatzea dakarrela, eta hau ez da horretarako lekua.

Ganbera honetan entzun doguz batzuen eta besteen aitamenak Euskadiko 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legearen inguruan. Lege horrek sendotu egiten dau aurreko esparru juridikoan jasotako printzipioetan agertzen zan arreta-eredua, ikuspegi komunitarioaren alde eginez, eta eredu hori personak euren ohiko bizimoduan jarraitzeko lehentasuna emoteko gai da.

Lege horren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemea erantzukizun publikoko arreta-sare artikulau bat da, titulartasun publikoko eta titulartasun pribadu itunduko prestazino, zerbitzu eta ekipamentuz osotua, eta persona, familia eta talde guztien gizarteratzea eta autonomia erraztea dauka helburu, sustapen-, prebentzino-, babes- eta laguntza-zereginak garatuta, izaera personaleko eta hartu-emonetarako prestazino eta zerbitzuen bidez, batez be.

Aitatutako 12/2008 Legeak dinoanez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemea finkatzeko eta haren helburuak lortzeko, Euskadi osoan prestazino eta zerbitzu berberak jasoteko aukerea bermatzeaz gain, titulartasun publiko eta pribadu itunduko zerbitzuen eta zentroen sare bat indartu eta sendotu beharra dago, eta, horretarako, berenberegiko itun-araubide bat ezarri behar da erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak

emoteko, alde batera itxi barik euskal administrazino publikoen eta erakunde pribaduen (irabazi-asmoa izan ala ez) arteko lankidetzarako beste aukera batzukaz batera formula bat egon daitekela.

Gure lehenengo agerraldian esan dogun moduan, mozinoan eskatutako puntuetako bat, beraz, Lege honetan jasota dago. Esan dogu, era berean, Lege horrek adostasun handia izan ebala Legebiltzarrean, eta adostasun horretan sartzen dala Ezker Batuaren aldeko botoa be, gaur egun Podemosen barruan dagoana, eta aldeko botoa emoteaz gainera, Gizarte Zerbitzuen Sailaren buru zala garai haretan, eta berak proponidu eban Eusko Legebiltzarrean lege hori onartzea.

Legeak argi eta garbi aitatzen dau gaur egun hain ohikoa dan titulartasun pribadu itundua, eta 2008an ez eban emoten inolako arazorik egoanik gaur jorratzen ari garan mozinoa aurkeztu dauen talde politiko horrentzat. Ez deutsagu erexten, egia esan, koherentziaren adibiderik onena. Arabere gitxiago Espainiako Gobernuko Eskubide Sozialen eta 2030 Agendearen Ministerioak, Podemoseko Idazkaritza Nagusiak gidauta, joan dan bagilean zentroak egiaztetako testu bat proponidu ebanean. Testu horrek autortu eta onartu egiten dau mendetasunari arretea emoteko zerbitzu publikoa eskaintzen daben zentroak itunduak izatea, hau da, titulartasun pribadukoak, eta, gainera, proposamen alternatibo barik. Emoten dau Madrilen balio dauenak ez dauela balio Bizkaian. Oposizinoan kritikoak zarie, eta Gobernuan pragmatikoak, beharbada.

Azpiegiturak alkarteak gaur egun kudeatzen dauzan egoitzen garrantzira itzulita, ezin dogu itxi aitatu barik foru egoitza-sareari egiten deutsan ekarpena. Laburbilduta, ezin dogu alde batera itxi Azpiegiturak alkarteak egoitza-sareari egiten deutsan ekarpena, ezta etorkizunera begira be. Bere garapena kontuan hartu barik, ezin izango geunskie gaur egun Bizkaiko herritarren beharrei erantzun. Hareen ekarpenari esker, sare nahikoa dimentsionaua, orekatua eta kalidadezkoa daukagu gure lurraldean egoitza-plaza bat behar daben mendetasun-egoeran dagozan personentzat. Egoera horri esker, gure ahaleginak sarea hobetzera bideratu geinkez: zentroak modernizau, bizikidetza-unidadeetan antolatu, banakako gela gehiago eta etxearen antzekoagoak dabezanak, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legeak agintzen dauenagaz bat etorrita.

Herritarren egungo beharrizanei eta baita etorkizunekoei be erantzuten jarraitu geinke. Non egongo ginateke gaur egun Azpiegiturak alkartearen ekarpen barik? Zein egoeratan egongo litzateke egoitza-sarea plaza nahiko barik? Zelan artatuko lirateke mendetasun-egoeran dagozan gure personak, egoitza-plaza nahikorik ez balego? Baten batek pentsau al dau hori? Inork pentsetan al dau zelako buruhausteak ekarriko leuskiguzan gaur egun behar bestean dimentsionauta ez legoken sare bat bagendu? 2001. urte haretako apustuak 2023ra ekarri gaitu, etxeko lanak eginda, eta foru egoitza-zerbitzuen kalidadea hobetzen eta garatzen jarraitzeko asmo eta borondate argiagaz. Barriro dinogu, EAJk orain dala bi hamarkada egindako apustuari esker, gaur egun pausuz pausu eta atseden barik, egoitza-sarea hobetzen jarraitu geinke.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lamborena Barreras. Y una vez finalizado el debate, debemos someter a votación la moción. Esperaremos hasta que estemos todos/as sentados/as. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 47 votos; han sido 13 votos a favor; han sido 34 votos en contra. No ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

A continuación, pasaremos al punto sexto del Orden del Día, a la dación de cuenta de lo que regula el artículo 13.3 de la Normativa, y dice así.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Solicitud de documentación (R.E.11/E/2022/0001112)
Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)
Asunto: Listado de entidades u organizaciones invitadas a la Recepción en el Palacio Foral con motivo de la festividad de San Ignacio.
Documento Principal: (R.E.11/E/2022/0001112),(R.E.11/E/2022/0002997)
Boletines: Admisión a trámite (390A)
Expediente: (11/B/27/0003496)

6.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Dokumentazino eskaria (11/E/2022/0001112SE)
Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)
Gaia: San Ignazio egunean Foru Jauregian egitekoa dan harrerara konbidautako erakunde edo alkarteen zerrendea
Dokumentu nagusia: (11/E/2022/0001112SE),(11/E/2022/0002997SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea (390A)
Espedientea: (11/B/27/0003496)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado. Por lo tanto, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias.

Tira, egia esan, ez neban uste gai honegaz hona helduko nintzanik. Irakurri ahal izan dozuenez, Foru Jauregian 2022rako San Inazio eguna zala eta, izango zan harrerara konbidautako erakunde edo alkarteen zerrendearen eskabide bat erregistrau neban maiatzaren 23an (3496 espedientea).

Barriro dinot, tira, erreklamazinoa eginda dagoan moduan, ahozko erantzun-eskearen itxuran bikainak bagina, leitekena da formatu horretako erantzuna 3 minututik gorakoa izatea, baina, mesedez, eskatzen deutsuet zeozelako malgutasuna izan daizuela eskaereari erantzuterakoan. Eta eskaerea honako hau da, barriro dinot, eta zehatza: San Inazio eguna dala eta, Foru Jauregian harrerara konbidautako erakunde edo alkarteak zerrendatzea edo aitatzea eskatzen dogu. Eta espero dot Gobernuak, galdera horri ahoz erantzuteaz gain, idatziz bialtzeko adeitasuna izatea, orain dala 8 hilebete baino gehiago eskatu genduan moduan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. Y en el turno de réplica, la representante de la Diputación, señora Bilbao Ibarra, tiene usted la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Buenos días a todos/as.

Sí. Pregunta quiénes se invitaron a la recepción que se celebra en el Palacio Foral el día de San Ignacio, y lo que puedo decir es que entre los invitados estuvieron los grupos políticos, sindicatos con una amplia representación de Bizkaia, y también aquellas empresas y entidades de toda clase con una amplia representación, así como asociaciones, entidades, del tercer sector, todo tipo de asociaciones de carácter social que se dedican a la promoción del conocimiento y uso del euskera, y personas concretas que por su trabajo o función tienen algo que decir en el reconocimiento de esa labor que realizan en Bizkaia.

Como saben, son una amplia representación de la sociedad vizcaína que suele ser invitada a la misma.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Bilbao Ibarra. Y en el turno de réplica, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias.

Egiaztau ahal izango zenduenez, erakundeen zerrendea eskatzen genduan, ez orokortasunena, ezpada banan-banan.

Zergaitik galdetzen dogu hori? Tira, besteak beste, gure eskubidea dalako, hau da, Gobernuaren kontrola, eta horrelango gauzak normalenak dira, Legebiltzarraren egin geinken gitxieneko kontrola. Baina galdetzen doguna, eta hemen gogorarazo gura dot Ahaldun Nagusiak guzurra esatea leporatu eustala esan nebanean klasistak ziniela eta sindikatuak ez zenduezala konbidetan harrera horretara. Eta zuzendu eta esan behar dot alde batetik errazoia eukala, baina beste alde batetik neuk be errazoia neukala. Eta hau da kontua: sindikatuen bitartez egiaztau ahal izan dogunez, sindikatu batzuk konbidau zenduezan, sail bakotxak konbidetan dabezalako, eta sail batzuek, Iraunkortasunekoa zala uste dot, sindikatu jakin bat konbidau eban, hori badakigu. Baina beste bat, Comisiones Obreras, esaterako, badakigu ez egoana konbidauta. Sano bitxia da, ez egozan sindikatu guztiak, ez eidazu orokortu, ez da-eta egia, horregaitik eskatzen ari gara zehaztapenak. Badakigu sindikatu batzuk ez egozana konbidauta, eta hemen dator egiten genduan galderearen zergaitia. Uste dogulako, eta hori izan zan klasistak izatearen akusazinoa, eta zuok bidebakoa zala edo ez zala egokia esaten zeunskuen. Izan be, ez dozue Bizkaiko beharginen ordezkaritza osoa konbidau, baina ikusten dogu patronalaren ordezkaritza osoa konbidetan dozuela, eta hori da deigarri egiten jakuna.

Eta, halanda be, ikusten ari garanaren arabera, ez dozuez konbidetan hirugarren sektoreko erakundeak edo pobreakaz behar egiten daben erakundeak, alkar ulertu gaitezan. Horregaitik, uste dot gure akusazinoa arean babestuta dagoala Gobernua klasistea dala egiaztau ahal izan dogunaren arabera, Bizkaiko gizarte osoaren ordezkaritza osoa ez dozuelako konbidetan, alderdiak, alderdi politikoak, zeozelan Bizkaiko herritarrak maila politikoan ordezten doguzala alde batera itxita.

Baina bada beste modu bat be, eta, hain zuzen be, parte-hartzea izan dogu berbabide; gizartea ordezteko beste modu bat dago, hau da, sindikatuak, hirugarren sektoreko erakundeak, etab., gure ustez, horreek konbidauta egon beharko leukie, Bizkaiko ordezkaritza osoa konbidetan dozuen ezkero.

Horregaitik, zerrenda zehatz horretan tematu gara. Goitik behera, banan-banan, erakunde guztiak, ez orokortasunak, hori da-eta une honetan jaso doguna.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. Y en el turno de réplica, la representante de la Diputación, señora Bilbao Ibarra, tiene usted la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Eta nik ahozko galdera bati erantzuten ari nintzala akusazino bati erantzun beharrean pentsetan nebala. Baina, tira, hori esanda, barriro dinot: Bizkaiko talde politiko eta sindikatu nagusiak konbidau ziran, baita enpresarien ordezkariak be bai, kultur alkarteak, kirol alkarteak, hirugarren sektorekoak, gizarte alkarteak, euskerearen erabilerea eta ezagutzea sustatzen daben erakundeak eta askoz jente gehiago be.

Egia da baita konbidetan danaren eta bertaratzen danaren artean, (zuok moduan, konbidauak izan zarienak eta batzuetan behintzat bertaratu zarie, ez dot gogoratzen azkenengora joan zarien ala ez) jente bat joan egiten da eta beste bat ez da joaten, konbidauta egon arren.

Halanda ze, ez dago modurik egiteko, gura dozun moduan, konbidadu-bertaratuen zerrenda zehatza, zorrotza, errazoizkoa. Beraz, ez eidazu esan etorri diran edo ez diran etorten, horrek ez dau-eta esan gura konbidau ez diranik.

Puede haber gente que haya sido invitada y que no haya aparecido, ahí lo que queremos es saber siempre que quien realmente asiste es una amplia representación. No es toda la sociedad, la representación de la sociedad es amplia y de toda clase, y ustedes saben mejor que nadie cuál es el tipo de gente que asiste, y es gente de toda clase y amplia. Y si ustedes no han asistido, supongo que tampoco querrán que aparezcan ustedes mismos en una lista en la que no está claro quién aparece, quién no, quién está invitado, quién no. Se invita a quien se invita, y asiste libremente quien quiere estar. Y lo que podemos hacer es intentar que esa gente que asiste esté a gusto durante ese tiempo. Y ustedes, al igual que los sindicatos, están invitados/as.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Bilbao Ibarra. Y una vez concluido el Orden del Día, finaliza también esta Sesión Plenaria; y que tengan un buen día.

Batzarra 13:13an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:13 horas.